



# PREBENTZIO BALIABIDEAREN ESKULIBURUA



**OSALAN**

*Laneko Segurtasun eta  
Osasunerako Euskal Erakundea*  
Instituto Vasco de Seguridad y  
Salud Laborales



CORPORACIÓN mutua



Erakunde Autonomiaduna  
Organismo Autónomo del

**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

EMPLEGU ETA GIZARTE  
GAETAKO SAILA  
DEPARTAMENTO DE EMPLEO  
Y ASUNTOS SOCIALES

Argitaraldia: 2011ko maiatza  
Ale-kopurua: 50 ale  
© OSALAN - Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea  
Eusko Jaurlaritzaren Erakunde Autonomiaduna  
Internet: [www.osalan.euskadi.net](http://www.osalan.euskadi.net)  
Argitaratzailea: OSALAN. Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea  
Dinamita bidea, z/g, 48903 Gurutzeta-Barakaldo (Bizkaia)  
Egileak: M.<sup>a</sup> Mar Crespo Millán - Mutualia  
M.<sup>a</sup> Pilar Bezares Pérez - Mutualia  
Marta Valencia Asso - Mutualia  
Jaione Fernández Landa - Mutualia  
Leonardo López Aguado - Osalan  
Francisco Javier Moreno Saracibar - Osalan  
Azala diseinua: e-dit, S.L.  
Fotokonposaketa: Ipar, S. Coop.  
Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao  
Inprimaketa: Gráficas Irudi, S.L.  
Uzbina, 25 - Pol. Ind. Júndiz - 01015 Vitoria  
ISBN: 978-84-95859-58-7  
D.L.: VI - 416-2011

OHARRA: Badago gaztelaniazko liburu baliokidea, eta «Manual del recurso preventivo» izenburua du.

# AURKEZPENA

604/2006 E.D. argitaratzean bete egin zen 55/2003 Legearen 32 bis artikuluan ezarritako konpromisoa; hau da, prebentzio-baliabidearen figura erregulatzea. Honen bidez osatu eta eragotzi nahi da lan segurtasun eta osasunaren kudeaketari dagokion guztiaren betetze formal soila. Horrela, figura espezifikoko bat sortzen da, berezko ezaugarriak eta garrantzizko zereginak dituena. Zeregin horiek zuzenduta daude ahalik eta zorrotasun handienez exekutatzera, arlo honetako jarduerak zehatza era egokian kontrolatzeko jarraibideak, aurretik ezagutuak eta informatuak; horren bitartez, segurtasun eta osasunaren arloko neurri egokiak behar bezala beteko dira eta horrela ahalbidetuko da, ez bakarrik jarduerak behar bezala exekutatzeko, lan-istripu tasa murriztea ere baizik.

Hausnarketa horiek abiapuntu gisa hartuta, Osalanek eta Mutuak argitalpen hau egin dute. Bertan, Lan-Ikuskatzailtzak adierazi dituen gomendioak jasota, testu batean proposatzen dira enpresaren aldetik prebentzio-baliabidearen figura era eraginkorrean kudeatzeko jarraibideak; eta, beste alde batetik, fitxetan eskaintzen da sekuentzia-segida ordenatu bat, prebentzio-baliabideak kontrolatu/ikuskatu behar dituen jarduerak ezberdinak -lan zehatza exekutatzeko beharrezkoak direnak- kudeatzean/koordinazioan izan beharreko jokabidea azaltzeko.

Hala ere, adierazi nahi dugu, era nabarian ezagutzen denez, prebentzioaren arloko arauak, bete beharreko zuzenbidearen gutxieneko arauen izaera dutela; eta, ondorioz, fitxetan ematen diren datuek ez dituztela aukera guztiak agortzen. Horrek azaltzen duen moduan, enpresek prebentzio-baliabideak izendatzearen posibilitatea aurreikus dezakete, argitalpen honetan jasotzen ez diren beste jarduerak eta lanpostuetan, arauari jarraiki, horrela exijitzen duten egoerak egote-kotan.

Laburbilduz, Laneko Segurtasun eta Osasuneko profesionalen esku jarri nahi dugu tresna bizi, erabilgarri eta labur hau, aldi berean, prozedura seguruen deskribatzailea eta osatua izanik, lagungarria izango zaizuelakoan jardun ahal izateko, industria-jarduerak, zentzu zabalean, egunero erakusten dizkizuen egoeretan, non langile trebatu eta espezializatuen presentzia beharrezkoa den, euren eginkizuna lan-arriskua desagertaztea/murriztea izanik, prebentzio-baliabidearen kasuan bezala.

Miguel Ángel Lujua Murga  
MUTUALIAko  
zuzendari kudeatzailea

Pilar Collantes Ibáñez  
OSALANeko  
zuzendari nagusia



# SARRERA

Abenduaren 12ko 54/2003 Legean burututako azaroaren 8ko 31/1995eko Legearen erreformak «Prebentzio Baliabideen» irudia sortu eta laneko arriskuen prebentzioa antolatze kontzeptu berria erantsi zuen, haien presentzia arrisku edo arriskugarritasun bereziko kasu eta egoera zehatzetan ezarriz, esperientziak adierazten duenaren arabera ezbehar-tasa handiena bereganatzen duten kasuetarako neurri gisa.

Baliabide berri hau gaitzeak funtsezko aldaketa eragin du enpresan prebentzioa antolatze moduan, prebentzio-baliabidearen irudia egunera arte ezagutzen genuen «prebentzionistak» izeneko tipologia zabaltzeaz gain, honi esleitzen zaio hainbat arrisku eta egoeratarako planifikatu den prebentzio-ekintza betetzen dela zaintzeko ardura nagusia.

MUTUALIAK eta OSALANek prestatutako Eskuliburu honen helburua da, batetik, irudi berri honi buruzko oinarrizko kontzeptuak argitzea, zaindu beharreko jarduerak hautatu eta kudeatzeko lana enpresetako arduradunei erraztuz (I. eta II. Zatiak) eta, bestetik, Prebentzio Baliabideen lana beteko duten langileen eskura, Prebentzio Baliabidea egotea beharrezkoa duten ekintzetan prebentzio-neurriei buruzko informazio orokorra jartzea.

Eskuliburu honetan jasotako informazioa, Prebentzio Baliabidearen inguruan dagoen araudian eta Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzako Zuzendaritza Nagusiak ondorengo irizpideen gainean emandako azalpenetan oinarrituta dago: Enpresa, zentro eta lantokietan Prebentzio Baliabideak egoteari buruzko 83/2010 zk.ko Irizpide teknikoan eta 39/2004 zenbakidunean. Bigarren hori, indargabetuta egon arren, enpresaburuei Prebentzio-baliabideren baten presentzia beharrezkoa izan daitekeela jotako jardueri buruzko orientabideak emateko aukera eskaintzen ditu.

Eskuliburu honetan jasotako informazioa jarduera bakoitzaren inguruan dagoen araudi berezian oinarrituta dago, baina , kasuan-kasuan, enpresa bakoitzean prestatutako instrukzio eta arauekin osatu egin da.



# AURKIBIDEA

<b>I. zatia. PREBENTZIO BALIABIDEARI BURUZKO OINARRIZKO KONTZEPTUAK . . . .</b>	<b>9</b>
1. Zer da Prebentzio Baliabidea? . . . . .	11
2. Noiz da beharrezkoa Prebentzio Baliabidea izatea? . . . . .	11
3. Nork bete dezake Prebentzio Baliabidearen lana? . . . . .	15
4. Prebentzioaren gaineko zer gaitasun eta prestakuntza izan behar ditu Prebentzio Baliabideak? . . . . .	17
5. Prebentzio Baliabideren eginkizunak, gaitasunak eta bermeak . . . . .	18
6. Prebentzio Baliabidearen erantzukizunak . . . . .	21
7. Zenbat Prebentzio Baliabide izan behar ditu enpresa batek? . . . . .	21
8. Non kokatu behar da Prebentzio Baliabidea? . . . . .	22
9. Prebentzio Baliabidea enpresa-jardueren koordinazioan . . . . .	22
10. Prebentzio Baliabidea eraikuntza-lanetan . . . . .	24
11. Dokumentazioa eta Erregistroak Prebentzio Baliabidearen kudeaketan . . . . .	25
12. Prebentzio Baliabideen inguruko arau-haustekak . . . . .	26
<b>II. zatia. ERANSKINAK . . . . .</b>	<b>29</b>
I. Prebentzio Baliabideak izatea eska dezaketen jarduera, prozesu eta eragiketen zerrenda adierazgarria . . . . .	31
II. Prebentzio Baliabidearen izendapen-akta . . . . .	41
III. Presentziaren esleipen-akta . . . . .	42
IV. Prebentzio-jardueraren Plangintza Eredua . . . . .	43
V. Prebentzio Baliabidea egotea eskatzen duen egoeraren zaintza-erregistroa . . . . .	44
VI. Lege-erreferentziak eta erreferentzia interesgarriak . . . . .	45
<b>III. zatia. PREBENTZIO BALIABIDEARENTZAKO INFORMAZIO FITXAK . . . . .</b>	<b>49</b>





## I. ZATIA

# PREBENTZIO BALIABIDEARI BURUZKO OINARRIZKO KONTZEPTUAK



## 1. Zer da Prebentzio Baliabidea?

Enpresak izendatutako eta laneko arriskuen prebentzioari buruzko prestakuntza-maila egokian gaitutako pertsona bat edo gehiago dira Prebentzio Baliabidea. Pertsona horiek beharrezko bitartekak eta ezagutzak dituzte eta prebentzio-baliabidea izatea eskatzen duten prebentzio-ekintzak betetzen direla zaintzeko bezainbeste dira.

Arrisku edo egoera zehatza baten aurrean Prebentzio Baliabidea egotea, enpresak arrisku edo egoera horretarako ezarritako prebentzio-ekintzak betetzen direla zaintzea helburu duen **prebentzio-neurri osagarria** da eta ezingo da ezinbestekoak diren bestelako babes-neurriak ordezkatzeko erabili. Prebentzio Baliabidea egoteak ez du Legeak edo Arriskuen Ebaluazioak debekatutako lanak egiteko gaitzen.



## 2. Noiz da beharrezkoa Prebentzio Baliabidea izatea?

**Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legeak** (32.bis artikulua) zehazten ditu lantoki batean Prebentzio Baliabideak egiteko beharra eta beharrezkoak diren kasuak. Ondorengoak dira hiru kasuak:

**a) Arriskuak larriagotu edo aldaraz daitezkeenean, prozesua edo jarduera gauzatzean, eragiketa batzuk izateagatik, elkarren segidan edo aldi berean gauzatzen direnak eta lan-metodoen behar bezalako aplikazioa kontrolatzea dakartenak**

Kasu honek enpresako langileek eurek zein kanpoko eta/edo azpikontratetako langileek egindako jarduera barne hartzen du.

Kasu hau aplikatzeko hiru baldintza eman behar dira:

- Eragiketak edo jarduerak aldi berean edo elkarren segida gertatzea.
- Aldi berean gertatze horrengatik arriskuak larriagotu edo aldatzeko aukera.
- Lan-metodoen aplikazio egokia kontrolatzeko beharra.

Nolanahi ere, Arriskuen Ebaluazioan, hasierakoan zein hurrengoetan, zehaztuko dira ekin-tzak aldi berean emateak larriagotu edo alda ditzaketen arriskuak.



**b) Erregelamenduen arabera arriskutsu diren edo arrisku bereziak dituzten prozesuak edo jarduerak egiten direnean**

Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua aldatzen duen **604/2006 Errege Dekretuak** (22. bis artikulua), ondorengoak barne hartzen ditu arrisku bereziak dituzten edo arriskutsutzat jotzen diren jarduerak edo prozesuak.

- 1.a. Garatutako jardueragatik, aplikatutako prozedurengatik, edo lanpostuaren inguruneagatik, altueratik erortzeko arrisku berezia duten lanak.

Prebentzio-printzipioak koherentziaz eta arduraz aplikatu ondoren, altueran garatutako jarduera-motagatik, aplikatutako lan-prozedurengatik edo lanpostuaren inguruneagatik, altuerako lanetan arriskua «bereziki larria» izaten jarraitzen duenean, eta beraz, prebentzio-neurri gehigarriak (banakakoak edo taldekoak) hartu behar izanez gero, arrazoituta legoke Prebentzio Baliabideen presentzia, langileak kalte larria pairatzea ekiditeko edo arriskua gutxiagotzeko.

- 2.a. *Azpian harrapatzeko edo hondoratzeko arriskua duten lanak.*

- 3.a. *Jarduerak burutzeko makinak behar direnean, baldin eta horiek, derrigortasuna ezarri aurretik merkaturatzeagatik CE adostasun-adierazpenik ez badute, ziurtatze-prozeduraz ohartarazitako erakunde baten esku-hartzea eskatzen duten makinak merkaturatzeari buruzko araudia behar dutenak bezalakoak badira, eta arauzko neurri aplikagarriak hartu arren, langilearen babesa nahikoa bermatuta ez dagoenean<sup>1</sup>.*
- 4.a. *Itxitako eremuetako lanak. Ondorio hauetarako, itxitako eremutzat jotzen da sarrera eta irteera mugatuak eta aireztapen natural desegokia dituzten barrutiak, baldin eta horretan kutsatzaile toxiko edo erregarriak meta badaitezke edo atmosferan oxigeno gutxi egon badaiteke, eta langileek bertan etengabe jarduteko moduko eremutzat jotzen ez bada.*
- 5.a. *Murgiltzeagatik itotzeko arriskua duten lanak, urpeko ekipoarekin murgiltzeko lanak izan ezik.*



Hori guztia, jarduera, prozesu, eragiketa, lan, ekipo edo produktuen prebentzioko xedapenetan jasotako neurriak baztertu gabe. Horietan, xedapen horiek aplikatuko dira daudenean, hain zuzen ere, ondorengo jarduera edo lanetan:

- a. *Urpeko ekipoarekin murgilduta egindako lanak.*
- b. *Erradiazio ionizatzaileen eraginpean egotea eskatzen duten lanak.*
- c. *Aire konprimituko kajoietan egindako lanak.*
- d. *Atmosfera leherkorrak izateagatik leherketa-arriskua duten lanak.*
- e. *Lehergaiak manipulatu, garraiatu eta erabiltzen dituzten jarduerak, artikulatu piroteknikoak eta lehergaiak dituzten bestelako objektuak eta tresnak barne.*
- f. *Arrisku elektrikoko lanak.*

<sup>1</sup> 1644/2008 EDak aldatu zituen 1435/92 EDko eta 56/95 EDko IV. eranskinean zerrendatutako makinez ari da.

Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduko I. Eranskinean barne hartutako jarduera edo prozesu arriskutsuak edo arrisku berezikoak burutzen dituzten enpresek ere Prebentzio Baliabideak egoteko beharra kontsideratu beharko lukete, jarduera horiek aipatutako Errege Dekretuan Prebentzio Baliabidea egoteko derrigortasuna ezartzen duten jarduera arriskutsuztat edo arrisku berezikotzat ez aipatu arren, zaintzeko betebeharrak hori kasuan-kasuan egon litekeela ulertzen delako.

Eraikuntza-lanei dagokienez, Prebentzio Baliabideen presentzia derrigorrekoa izango da 1627/97 EDko II. Eranskinean (*Langileen segurtasun eta osasunerako arrisku bereziak dituzten lanen zerrenda ez zehatza*) aurreikusitako arrisku bereziko lanak egiten direnean eta arrisku horiek elkarren segidan edo aldi berean garatzen diren hainbat eragiketak elkarrekin egiteagatik larrigotatu edo aldatzen direnean.

1. *Garatutako jarduera, aplikatutako prozedura edo lanpostuaren inguruaren ezaugarri bereziak direla-eta, azpian harrapatzeko, hondoratzeko edo altueratik erortzeko arrisku bereziki larriak dituzten lanak.*
2. *Agente kimiko edo biologikoen eraginpean egoteak arrisku berezi larria duten, edo langileen osasunaren berariazko zaintza derrigorrezkotzat duten lanak.*
3. *Erradiazio ionizatzaileen eraginpeko lanak; hauetarako, kontrol edo zaintzapeko eremuak mugatzea behartzen du berariazko araudiak.*
4. *Goi-tentsioko linea elektrikoetatik gertu egiten diren lanak.*
5. *Murgiltzeagatik itozteko arriskua duten lanak.*
6. *Lurrazpiko lur-higadurak eskatzen dituzten tunel, putzu eta bestelakoak induskatzeko obrak.*
7. *Urpeko ekipoarekin murgilduta egindako lanak.*
8. *Aire konprimituko kajoietan egindako lanak.*
9. *Lehergaiak erabiltzea eskatzen duten lanak.*
10. *Aurrefabrikatutako elementu astunak muntatu eta desmuntatzea eskatzen duten lanak.*

**c) *Prebentzio-baliabidea egotea Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzak eskatzen duenean, kasuaren ezaugarriek hautemandako lan-baldintzengatik eskatuko balute***

Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzak lanlekuan prebentzio-baliabideak izatea eskatu ahal izango du, Ikuskapen-bisita egin ondoren eta jasotako informazioaren arabera, enpresaburuak jarduera, prozesu edo eragiketa batean hartu dituen prebentzio-neurriak, Laneko arriskuen prebentzioari buruzko Legearen 15. artikuluan ezarritako prebentzio-ekintzaren printzipioak koherentziaz eta ardura aplikatzeko **nahikoak ez direla edo desegokiak** direla ulertzen duenean, eta neurri horiek berehala hartzerik ez dagoenean. Kasu honetan, jarduera horietan Prebentzio Baliabide bat aldi batez egotea eskatu ahal zaio enpresari, enpresa horrek eman zaion denboran prebentzio-neurriak zuzentzen ez duen bitartean, eta baldin eta langileentzat arrisku larri eta berehalakoa ez badago. Azken kasu honetan lana geldituko litzateke.

Irizpide honi jarraiki, noizean behin edo salbuespenez egiten diren jardueretan ere gerta liteke, arrisku guztien kontrol osoa ez dagoela uste denean.

Nolanahi ere, Prebentzio Baliabidearen izendapena ezin da enpresaburuak kasuan-kasuan prebentzio- eta babes-neurri egokiak hartzeko duen betebeharraren ordeko behin behineko neurri alternatibotzat hartu.



Prebentzio Baliabideen presentzia eskatu ahal izango da, orobat, arriskuak larriagotu ahal direnean, honelako langileek egiten dituztelako:

- a) 18 urtetik beherakoek.
- b) Bereziki sentikorrek.
- c) Hasierako trebakuntza-fasean diharduten berriek (ABLEEK kontratatuko langileak barne).

Kasu hauetan ere Ikuskaritzak baloratuko ditu kasu zehatzaren baldintzak Prebentzio Baliabidearen presentzia eskatzerakoan.

Prebentzio Baliabidea izateko beharra eragin dezaketen litezkeen egoerak zehazten errazteko, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko legean, Errege Dekretu ezberdinetan eta Ikuskaritzaren Irizpide Teknikoetan jasotako suposamenduak taldekatu dira **Prebentzio Baliabideak egoteko beharra eragin dezaketen jarduera, eragiketa eta prozesuen zerrenda (ikus i. Eranskina)** izeneko atalean.

### 3. Nork bete dezake Prebentzio Baliabidearen lana?

#### A) IZENDA DAITEZKEEN PERTSONAK


**Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen** 32. bis artikulua araberan, ondo-koak dira prebentzio-baliabideak, eta enpresaburuak horiek lantokian egotea agin dezake:

- a) *Enpresak izendatutako langile bat edo batzuk (Laneko Arriskuen Legeari buruzko 30. artikulua araberan). Enpresako prebentzio-zerbitzuko kide bat edo batzuk.*
- b) *Enpresak hitzartutako enpresatik kanpoko prebentzio-zerbitzuen kide bat edo batzuk.*
- c) *Ez dago jarduera hau kanpoko prebentzio-zerbitzu batekin hitzartzeko legezko eragozpenik, enpresak zerbitzu horrekin ohiko eta etengabeko prebentzio-jarduera kontratatuta ez eduki arren. Horretarako, **hitzarmen berezia** sinatu beharko da.*

#### B) IZENDATUTAKO LANGILEAK.

Artikulu beraren araberan, *enpresaburuak «esanbidez agin» diezaieke langile bati edo batzuei lantokian egotea, nahiz eta prebentzio-zerbitzukoak izan ez, ezta izendatutako langileak ere; langile horiek izango dituzte 1. idatz-zatiak aipatu jarduera edo prozesuetan behar diren baldintzak, kualifikazioa eta esperientzia, bai eta, gutxienez, oinarrizko mailako eginkizunei dagokien prebentzio-prestakuntza ere.*

Prebentzio Baliabideak Enpresa, Zentro eta Lantokietan egotearen inguruko **Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzaren 83/10 zk.ko Irizpide Teknikoaren** araberan, izendatutako langilea Prebentzio baliabidearen irudi alternatiboa da; beraz, izendatzerakoan prebentzio-baliabidea izendatzeko betebeharra betetzen da.



171/2004 EDko 13. artikulua ezartzen dituen prebentzio-jardueren koordinazio-arduradunak daudenean, Eraikuntza-lanetan izan ezik, eta **Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzaren Irizpide Teknikoaren arabera**, prebentzio-baliabideen izaera pertsona berberari edo berbereri esleitu ahal izango zaie, izendapen biak bateragarriak izanik.

Prebentzio Baliabide ezberdinak daudenean, elkarrekin jardun beharko dute beren jarduna murriztu edo ezabatu nahi diren arriskuen arabera eraginkorra izan dadin.

### C) PREBENTZIO BALIABIDEA ETA PREBENTZIO ORDEZKARIAK

Araudi aplikagarrian Prebentzio Baliabidearen eta Prebentzio Ordez kariaren irudien arteko bateraezintasuna edo biak egoteko debekua ez egon arren, eta izendatutako langileei zein Prebentzio-zerbitzuko kideei esleitzen zaizkien eginkizunak bateraezinak direnez, Prebentzio Ordez kariak Prebentzio Baliabide izendatzerik ez dagoela ondorioztatu da.

Prebentzio-baliabide bat egotea premia eskatzen duten aparteko, ezusteko eta ezinbesteko egoeretan bakarrik, eta beharrezko prestakuntza eta kualifikazioa Prebentzio Ordez kariak baino ez daukanean, enpresak izendapen hori egitea onar liteke. Kasu honetan, esleitzen zaizkion eginkizunek behin-behinekoak, mugatuak eta salbuespenekoak izan beharko dute.





#### 4. Prebentzioaren gaineko zer gaitasun eta prestakuntza izan behar ditu Prebentzio Baliabideak?

**Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen** 32. bis artikulua araber, Prebentzio Baliabideak kasuan-kasuan prebentzio-ekintzak betetzen direla zaintzeko nahikoa gaitasun izan beharko dute.

Prebentzio Baliabideak izendatutako langileak edo enpresako nahiz enpresatik kanpoko prebentzio-zerbitzuko kideak izan daitezkeenez, beren eginkizunetarako beharrezkoa izango den prestakuntza Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduko 35. artikuluan ezarritakoa izango da, eta gutxienez ere, oinarriko mailako eginkizunei dagokiena (gutxienez 50 orduko iraupena, I. eranskinean barne hartutako jardueraren bat garatzen duten enpresen kasurako, eta 30 ordukoa gainerako kasuetarako). Eraikuntza-sektorearen kasuan, **2007ko abuztuaren 1ean argitaratutako Eraikuntzaren IV. Hitzarmen Orokorreko** 158. artikulua ezartzen du, oinarriko mailarako prestakuntza-edukiaren gutxienezko iraupena 60 ordukoa izango dela.

Enpresak presentzia gorago aipatutakoak ez den langile bati esleitu badio, Prebentzio Baliabideak gutxienez oinarriko mailako eginkizunei dagozkien prestakuntza ere izan beharko du.

Beharrezko prestakuntza zehazterakoan, kontuan izan beharko da Prebentzio Baliabidearen egitekoa prebentzio-neurriak betetzen direla zaintzea eta, lan arriskutsuen eta arrisku bereziko kasuan, prebentzio-neurriak eraginkorrak, egokiak, nahikoak edo behar ez bestekoak diren ezartzea dela. Oinarriko mailako prestakuntza oinarriko prebentzio-jarduerak egiteko baino ez du gaitzen eta kasu hauetan, arriskuak hautemateko ezagutza teknikoak izatea ere beharrezkoa denean, edo horien prebentzioa zaila denean, komenigarria litzateke prestakuntza garatutako jarduerari buruzko esperientzia eta ezagutza bereziekin osatzea.

**Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzaren 83/10 zk.ko Irizpide Teknikoaren** araber, oinarriko mailako eginkizunei dagokien prestakuntza nahikoa izan daiteke 31/95 Legearen 32.b artikuluko 1.a idatz-zatian jasotako kasuetarako, noiz eta «arriskuak larriagotu edo al-

daraz daitezkeenean, prozesua edo jarduera garatzean...», ez ordea, 1.b idatz-zatian jasotako kasu gehienetan: «arriskutsu diren edo arrisku bereziak dituzten prozesuak edo jarduerak egiten direnean». Kasu hauetan beharrezkoa litzateke, gutxienez ere eta arriskuen arabera, bitarteko maila izatea; bestela, oinarrizko mailakoaren prestakuntza osagarria eta gehigarria eman ahal izango da, baldin eta prestakuntza hori arrisku zehatz bati edo bat baino gehiagori buruzko berezia baldin bada, adibidez, lan-ekipoen ondoriozko kasuan, itxitako eremuetako lanetan, eta abarretan.



Beharrezko prestakuntzaz gain, izendatutako langileak eginkizunak betetzeko nahikoa gaitasuna izan behar du, hau da, eginkizunen xede diren jarduerak edo prozesuetan beharrezkoak diren ezagutzak, kualifikazioa eta esperientzia.

Arriskuen ebaluazioaren ondoriozko prebentzioko jardueren plangintzan edo eraikuntza-lanetako segurtasun-planean, Prebentzio Baliabidearen beharrezko prestakuntza eta gaikuntza zehaztu beharko da.

## 5. Prebentzio Baliabideren eginkizunak, gaitasunak eta bermeak

### A) FUNCIONES

**Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduko 22.bis artikulua**ren arabera, honakoa izango da Prebentzio Baliabidea egotearen helburua:

a) Prebentzio-ekintzak **betetzen direla zaintzea:**

- Horien eraginkortasuna egiaztatzea.
- Definitutako arriskueterako egokiak diren.
- Aurreikusitako gabeko arriskueterako egokiak diren.

b) Prebentzio-ekintzen **betetze-maila behar bestekoa ez dela igartzekotan:**

- Ekintza horiek behar bezala betetzeko berehalakoan beharrezko argibideak ematea.
- Enpresako arduradunari egoera hauen berri ematea, artean zuzendu ez badira, beharrezko neurriak har ditzan.

c) Prebentzio-neurriak **betetzen ez direla, behar bestekoak ez direla edo desegokiak direla igartzekotan:**

- Enpresaburuari jakinaraztea.  
Enpresaren arduradunak berehalakoan hartu beharko ditu beharrezko neurriak huts-egiteak zuzentzeko, bai eta prebentzio-ekintzen plangintza eta, hala badagokio, laneko arriskuen ebaluazioa edo segurtasun-plana egin ere.

Eginkizun hauek betetzeko ondorengo puntuak izango dira aintzat:

1. Prebentzio Baliabide baten presentzia lan-zentro, lanpostu edo eragiketa zehatz baterako izendatu edo esleitzen da, hau da, bere egitekoa ez da izango aurreikusitako prebentzio-neurri guztiak betetzen direla zaintzea, baizik eta bakar-bakarrik esleitu zaizkionak.

Eraikuntza-lanei dagokienez, Prebentzio Baliabidearen edo «izendatutako» Langilearen egitekoa ez da Segurtasun Planean aurreikusitako prebentzio-neurri guztiak betetzen dira zaintzea, baizik eta Plan horrek Prebentzio Baliabidearentzat aurreikusitakoak bakarrik.

2. Enpresako arduradunak, zaintzaren helburu izango diren lanpostu, toki edo lan-lekuen gaineko, zaintzapeko eragiketa zehatzen inguruko eta Ekintza zuzentzaileen Plangintzan nahiz Segurtasun Planean bildutako prebentzio-neurrien artean zaindu behar dituztenei buruzko jarraibide zehatzak eman beharko dizkie Prebentzio Baliabidearena egiten duten langileei.

Halaber, zaintza-lana betetzean antzemandako gabeziak jakinarazteko jarraitu beharreko prozedura zein den zehaztu beharko du, bere jarraibideak jarraibide, gabezia horiek zuzentzen ez badira edo prebentzio-neurririk ez dagoela edo nahikoak edo egokiak ez direla antzematen denean.

3. Presentziarako izendatutako pertsona zein den jakinarazi beharko die gainerako langileei enpresako arduradunak.



Ez da exijituko Prebentzio Baliabidea egiteko horretan bakarrik aritzeko beharra, baina bere eginkizuna betetzeko adina denbora eduki beharko du. Gainbegiratzeak **zuzenekoa eta berehalakoa** izan behar du eta arrisku-egoera mantentzen den bitartean egin behar da.

## B) ESKUMENAK ETA BERMEAK

Prebentzio Baliabideek eta izendatutako langileek zaintzaren ondorioz prebentzio-ekintzen betetze-maila behar ez bestekoa dela hautematen badute, ondorengoetarako **eskumenak** izango dituzte:

- Prebentzio-ekintzak behar bezala eta berehala betetzeko beharrezko argibideak emateko.
- Enpresako arduradunari baldintza horien berri emateko, horrek hautemandako gabeziak zuzentzeko beharrezko neurriak har ditzan, artean zuzendu gabe badaude.

Arauk ez dio, berariaz, lanak gelditzeko eskumena ematen; baina enpresako arduradunak, bere zuzendaritza-ahalmena betez, jarduera gelditzeko eskumen hori eman ahal dio.

**Bermeei** dagokienez, «izendatutako langileak» edo «bertako prebentzio-zerbitzuko ki-deak» **Prebentzio Baliabide** izendatuz gero, 31/1995 Legearen 30.4. artikulua Langileen Estatuaren testu bategineko 68. artikuluko a), b) eta c) hizkietan langileen ordezkartzarako aurreikusitako bermeetara jotzen du:

- Hutsegite larri edo oso larriengatik ezarritako zigorren kasuan, kontrako espedientea irekitzeko bermea; halakoetan, interesatuari eta enpresa-batzordeari edo langileen gaitzarako ordezkariari entzun behar zaie.
- Beste langileen gaitzarako, lehentasuna izango dute enpresan edo lantokian jarraitzeko, teknika edo ekonomiako arrazoiak medio kontratua eten edo amaitzen denean.
- Ez beren funtzioak egiten ari direla, ez eta agintaldia amaitu eta hurrengo urtean, ezin dira ez kaleratu, ez zehatu, baldin eta kaleratzea edo zehapena langileak ordezkartzara-lanetan diharduela egindakoa oinarri hartuta agintzen bada, eta agintaldia errelokaziorik edo dimisiorik gertatu ez bada. Hala ere, 54. artikuluan ezarritakoa salbuespena izango da. Gainera, ezin izango zaie bereizkeriarik egin soldatetan edo lanbidean sustatzeko orduan, hain zuzen ordezkartzara-lanetan aritzeagatik.



eta ondorengo lege-testu bereko 56. artikuluko 4. idatz-zatian:

Bidegabeko kaleratzeari dagokionez, langileen legezko ordezkari bat edo sindikatueta-ko delegatu bat edo, kasu honetan, Prebentzio Baliabide izendatutako pertsona bat bada kaleratutakoa, berorri dagokio beti enpresan berriro onartzeko edo kalte-ordainak ordaintzeko aukera. Aukerarik egiten ez badu, berriro lanera sartzeko aukera egiten duela ulertu behar da. Eta aukera, bai beren-beregi egindakoa, bai ustezkoa ere, lanera berriro sartzeko bada, derrigorrezkoa izango da lanean hartzea.

Gaur egun ez dago Prebentzio Baliabidearen eginkizunak betetzeko izendatutako pertsonen bermeak arautzen dituen lege-oinarririk. Lan Zuzendaritza Nagusiaren aburuz, eta 2009ko otsailaren 27an egindako kontsultan adierazi zuenez, ez dagozkiela Prebentzio Baliabide izendatutako «bertako prebentzio-zerbitzuetako kideen» edo «izendatutako langileen» berme berberak.

#### D) IZENDAPENA EDO ESLEIPENA ONARTZEKO DERRIGORREZKOTASUNA

Kasu bietan, izendapenean edo esleipenean, enpresaren arduradunak bere ohiko zuzendaritza-eskumenak betetzean emandako aginduak eta jarraibideak bete behar dituzte langileek, baldin eta langileak esleitu zaion egitekorako behar dituen eta prebentzio-ekintzaren plangintzan zaintza eskatzen duen arriskuaren izaeraren arabera ezarri diren gaikuntza eta prestakuntza baditu.

Edonola ere, langileentzako prestazio berriekin batera enpresako arduradunaren dagozkion kontraprestazioekin batera eman behar badira, alderdien artean adostasunik egon ezean, Lan Arloko Jurisdikzioaren aurrean erreklamatu beharko dira eta har zehaztu beharko ditu.

## 6. Prebentzio Baliabidearen erantzukizunak

Ez da Prebentzio Baliabideentzat administrazio-erantzukizunik aurreikusi, izan ere, horiek izendatzen dituzten enpresek eta pertsonak bere gain hartzen dituzte arlo honetako arau-hausteen inguruko administrazio-erantzukizunak.

Hori guztia, gainera, ekintzengatik edo ez-egiteagatik sor daitezkeen bestelako erantzukizunak (penal edo zibilak) baztertu gabe, horiek prebentzioaren arloko beste edozein egileri dagozkion berberak izanik.

## 7. Zenbat Prebentzio Baliabide izan behar ditu enpresa batek?

Prebentzio Baliabideen kopurua planifikatutako prebentzio-ekintzak betetzen direla zaintzeko bezainbestekoa izango da, eta lan-lekuan egon beharko du bere presentzia eskatzen duen egoerak dirauen bitartean.

Enpresa batek baino gehiagok aldi berean bakoitzak egiten duen jarduera bestearenaren arriskuak eraldatu edo larriagotu ahal baditu eta horien lan-metodoek aldi berean kontrolatzea eskatzen badute, jarduerak burutzen ari diren enpresa guzti-guztietan da presentzia izateko derrigortasuna.



Kasu honetan, elkarrekin, prebentzioaz arduratutako pertsonekin eta enpresa nagusiaren edo, baleude, lan-tokiko titularraren prebentzio-ekintza koordinatzeaz arduratutako pertsonekin jardun beharko dute, beren jardunaren eraginkortasuna ezabatu edo murriztu nahi duten arriskuaren araberakoa izan dadin.

## 8. Non kokatu behar da Prebentzio Baliabidea bere egitekoa betetzeko?

**Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduaren** arabera, egon behar duten Prebentzio Baliabideen edo izendatutako langileen kokapenak:

- Dagozkien eginkizunak betetzea ahalbidetu behar die.
- Kokaleku segurua izan behar du, beraientzat edo gainerako langileentzat arriskuren faktore gehigarria izan gabe.

Bertan egotea eskatzen duen egoerak dirauen bitartean lan-lekuan egon behar du.

## 9. Prebentzio Baliabidea enpresa-jardueren koordinazioan

Lan-leku batean enpresa bat baino egotea egoera ezberdinetan gerta daiteke. Kasu batzuetan, enpresen arteko harremana horizontala da, hau da, guztiak, elkarren ondoan, antzeko egoeran daude. Beste batzuetan, bertikala da harremana, eta enpresetako batek dagokion jarduera edo beste bat azpikontrata dezake. Batera lan egiten duten enpresen arteko harremana edozein dela, Prebentzio Baliabideak izendatzeko betebeharra zentroan dauden arriskuak eraldatu edo larriagotzen dituzten edo arriskutsuak diren edo bertako zein kanpoko langileentzat arrisku bereziak dituzten eragiketa edo jarduerak egiten dituzten enpresari edo enpresei dagokie.



Horrek esan nahi du, Prebentzio Baliabidea egotea eskatzen duen lan arriskutsua egiten duena enpresa azpi-kontratista bada, azpi-kontratista izango dela, eta ez kontratista, baliabide hori esleitu behar duena. Hori guztia, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 24. artikuluko 3. idatz-zatian ezarritakoa baztertu gabe, honakoa ezartzen baitu: *berezko jardueraren obra edo zerbitzuak beste enpresa batzuekin kontratatzen edo azpikontratatzeko dituzten enpresek, obra edo zerbitzu horiek euren lantokietan gauzatzen badira, zaindu beharko dute kontratari eta azpikontratari horiek lan-arriskuak prebenitzeko arautegia betetzen dutela.*

**Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzaren 83/10 zk.ko Irizpide Teknikoaren** arabera, enpresa batek jarduera edo eragiketa bat baino gehiago «behin eta berriz» egiten duenean eta horrek zentroan lan egiten duten pertsonari eragin ahal badie, Prebentzio Baliabideak lanetik alde egiterakoan, bigarren enpresari egokituko zaio Prebentzio Baliabidea izendatzea, lan-metodoak kontrolatu behar baititu bere langileak lehenengoak sortutako arriskuaren eraginpean egon ez daitezken. Kasu honetan, enpresa bien artean informazioa elkartrukatu eta beharrezko koordinazio-lanak egin beharko dituzte.

**Irizpide** honek, halaber, «aldi berean» jarduera bat baino gehiago egiten direnen kasua ezartzen du, horien arriskua bakoitzak egiten duenagatik eraldatu edo larriagotu ahal direnean eta horien lan-metodoek aldi berean kontrolatzea eskatzen dutenean. Kasu honetan, prebentzio-baliabidea izendatzeko betebeharra jarduerak burutzen dituzten enpresa guzti-guztiena izango da.

Prebentzio-baliabideak elkarrekin, gainerako Prebentzio Baliabideekin eta prebentzio-ekintza koordinatzeaz arduratutako pertsonarekin edo pertsonekin elkarlanean aritu beharko dira.

Gorago azaldutako kasuak, jardueren koordinazioko kasuak dira, eta hauek enpresa-jardueren koordinazioari buruzko 171/2004 EDak (Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 24. artikulua garatzen duena) arautzen ditu. Errege Dekretu horren 11. artikuluan jotzen da prebentzio-ekintzen koordinaziorako bitartekotzat, hain zuzen ere, elkarrekin lan egiten duten enpresetako Prebentzio Baliabideak lan-zentroan egotea, hain zuzen ere.

Prebentzio Baliabideak egotearen errekerimendua bateragarria da, **171/2004 EDko** 13. artikulua aipatzen dituen prebentzio-ekintzen koordinazioaz arduratutako pertsonen izendapenarekin, pertsona bat edo gehiago izenda daitezkeela.



Nolanahi ere, prebentzio-ekintzen koordinazioaz arduratutako pertsonak edo pertsonak, elkarrekin lan egiten duten enpresetako Prebentzio Baliabideekiko beharrezko lankidetzak mantendu beharko dute.

1627/1997 EDak arautzen dituen eraikuntzalanen kasuan, hurrengo atalean zehazten diren beheritasunak daude.

## 10. Prebentzio Baliabidea eraikuntza-lanetan

**Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen** Hamalagarren Xedapen Gehigarriko 1. idatz-zatiaren arabera, lege beraren 32. bis artikuluan Prebentzio Baliabideari buruz xedatutakoa, eraikuntza-lanetako gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenei buruzko **1627/97 ED**ak araututako eraikuntza-lanei aplikatu dakieke, ondorengo espezializateekin:

- a) Kontratista bakoitzari aplikatuko zaio lanetan Prebentzio Baliabideak egoteko eskakizuna.
- b) Elkarren segidan edo aldi berean garatzen diren hainbat eragiketa betetzeagatik, prozesu edo jardueraren garapena larriagotu edo eraldatzeko arriskua dagoen eta, ondorioz, lan-metodoak egoki aplikatzen direla kontrolatzea beharrezkoa den kasuan, beharrezkoa izango da kontratista bakoitzaren Prebentzio Baliabideak egotea, obran **1627/97 ED**ko II. Eranskinean aurreikusitako arrisku bereziko lanak garatzen badira.
- c) Prebentzio Baliabideak egotearen helburua izango da Laneko segurtasun- eta osasun-planeari jasotako neurriak betetzen direla zaintzea eta horien eraginkortasuna egiaztatzea.

Prebentzio Baliabideak egoteak ez du esan nahi segurtasun- eta osasun-arloko koordinatzaileak obra egiten den bitartean eginkizunak ez dituenik.

Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzaren arabera, enpresa **kontratista nagusiari** dagokio Prebentzio Baliabidearen presentzia, eta ez azpi-kontratatari, hau da, Prebentzio Baliabideak egoteko betebeharra enpresa kontratatari espresuki esleitzen zaio, eta onartezina da betebeharrak hori kontratazio-kate osoan zehar transmititzea.

**Kontratista nagusitza** da, sustatzailearen aurrean bereak diren eta ez diren giza baliabide eta baliabide materialen bitartez eta kontratu bidez, proiektuaren edo kontratuaren arabera obraren zati bat edo osoa egiteko sustatzailearekin konpromisoa zuzenean bere egiten duen pertsona fisiko edo juridikoa da. Kontratatatzat jotzen dira, halaber, aurreko betebeharra dutenak, eta horien artean:


- a) Bere giza baliabide eta baliabide materialekin obraren zati bat edo osoa zuzenean egiten duen sustatzailea.
- b) Obraren lan egiteko besteen konturako langileak kontratatzen dituen eta sustatzailearekin zuzenean kontratatzen duen autonomia.
- c) Sustatzailearekin zuzenean kontratatzen duen eta obra zuzenean egiten duen ABEE. Obra egiten ez badu, esku hartzen duten enpresa guztiek Prebentzio Baliabide bano izendatu beharko dute.

Obrako Koordinatzailearen eta Prebentzio Baliabidearen eginkizunak pertsona berarenak izateari dagokionez, hau bakarrik gertatuko da enpresa bat, aldi berean, sustatzailea eta kontratatista nagusia denean. Hala ere, eta 1627/1997 EDko 3. artikuluan obrako Segurtasun eta Osasun Koordinatzailea izendatzea aurrekusi eta arautzen duenez, eta 9. artikuluan, berriz, dagozkion eginkizun bereziak, eta horiek eta obra bakoitzeko Segurtasun Planeari Prebentzio Baliabidearentzat ezartzen diren neurriak zaintzeari dagozkionak ezberdinak direnez, ez dirudi eginkizun biak pertsona berberak aldi berean bete ahal dituenik.

Adierazi behar da Prebentzio Baliabide bat eraikuntza-lan batean egoteak ez duela ez d ez enpresa kontratatista, ezta azpi-kontratatista ere, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 24. artikuluan eta 171/2004 EDan aurreikusitako koordinazio-eginkizunak betetzeaz salbuesten,



Errege Dekretu horren 1. Xedapen Gehigarrian aurreikusitako berezitasunak kontuan hartuta. Xedapen horretan adierazten da segurtasun eta osasun Koordinatzailea izendatu behar dela obra bat egiten enpresa bat baino gehiago ari denean.



**Segurtasun- eta osasun-planak** Prebentzio Baliabideen presentzia gauzatzeko modua ezarriko du, berori baita eraikuntza-lanetan arriskuen identifikazio-lanak eta, hala badagokio, horien ebaluazio-lanak eta prebentzio-ekintzaren plangintza antolatzeko oinarrizko tresna.

Prebentzio Baliabidearen zaintza-lanaren ondorioz prebentzio-neurriak ez dagoela, nahikoak ez direla edo betetzen ez direla hautematekotan, enpresako arduradunak, beharrezkoa balitz, segurtasun- eta osasun-plana aldatuko du, berehala dagozkion neurriak hartzeko beharra baztertu gabe.

Prebentzio Baliabideari segurtasun- eta osasun-planean xedatutako prebentzio-neurriei buruzko informazioa eman beharko zaio, hark horiek betetzen direla zaindu eta horien eraginkortasuna egiazta dezan.

## 11. Dokumentazioa eta Erregistroak Prebentzio Baliabidearen kudeaketan

**Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduko** 22.bis artikulua ezartzen du laneko arriskuen ebaluazioak, hala hasierakoa, nola ondorengoak, elkarren segidan edo aldi berean eragiketa bat baino gehiago egiteagatik larriagotu edo eraldatu ahal diren arriskuak, eta jarduera edo prozesu arriskutsuei edo arrisku berezikoei lotutako lanpostuari dagozkion lanak edo egitekoak identifikatuko dituela. Kasu bietan, **Prebentzio-ekintzaren plangintza** Prebentzio Baliabidearen presentzia ezarri beharko da, eta horretan, honako hauek zehaztu: nortzuk izango diren Prebentzio Baliabideak, beren egote horri lotutako jarduerak eta beharrezko prestakuntza eta gaikuntza; eta hori guztia, arriskuaren izaeraren eta larritasun-mailaren arabera izango da.

**Eraikuntza-lanetako segurtasunari buruzko 1627/1997 ED**aren arabera, Segurtasun- eta osasun-planak Prebentzio Baliabidearen presentzia gauzatzeko modua ezarriko du.

Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzak Prebentzio Baliabidea egoteko beharra ezarriko balu, enpresako arduradunak ebaluazioa berrikusiko du, hautemandako arrisku-egoerak barne, eta prebentzio-ekintzaren plangintza aldatuko du, egoera horietan Prebentzio Baliabidea egoteko beharra barne hartuz.

Prebentzio Baliabideen edo izendatutako langileen izendapena dokumentu batean erregistratuta gelditu beharko da. Izendatutako pertsonak identifikatu ahal izateko beharrezkoak diren datuak helaraziko dizkie enpresako arduradunak gainerako langileei. **II. eta III. Eranskinetan** izendapen-akten ereduak azaltzen dira.

Arriskuak larriagotu edo eraldatu ahal diren egoerak zein jarduera edo prozesu arriskutsuak edo arrisku berezikoak errazago identifikatzeko, **I. Eranskinean Prebentzio Baliabidea**

**egotea eska dezaketen jarduera, eragiketa eta prozesuen Zerrenda adierazgarria** barne hartzen da. Zerrenda honetatik abiatuz, Prebentzio Baliabidea egotea eskatzen duten jarduerak eta kasuan kasuko prestakuntza-maila zehaztu behar dira Prebentzio-ekintzaren plangintzan. **IV. Eranskinean Prebentzio-ekintzaren plangintza** egiteko eredia azaltzen da.

Zaintza-lan bakoitzean, presentziaren beharraren, kasuan-kasuan kontuan izan beharreko prebentzio-neurrien zein zaintzaren emaitzaren jatorria identifikatzen duen erregistroa sortu beharko litzateke. **V. Eranskinean Prebentzio Baliabidea egotea eskatzen duen egoeraren zaintzaren erregistroaren** eredia azaltzen da. Eraikuntza-lanen kasuan, Intzidentzia Liburuan jaso daitezke zaintza-lanak, dagozkion oharrak idatziz.

Lan-tokian jarduera, eragiketa edo prozesu arriskutsuak edo arrisku berezikoak egiten dituzten enpresak elkarrekin arituz gero, enpresa horietako Prebentzio Baliabideek elkarlanean jardun beharko dute. Prebentzio Baliabideen presentzia enpresa-jardueren koordinazioaren aktan islatu beharko da.

Prebentzio Baliabideari segurtasun- eta osasun-planean xedatutako prebentzio-neurriei buruzko beharrezko informazio guztia eman beharko zaio, hark horiek betetzen direla zaindu eta horien eraginkortasuna egiazta dezan. Ondorengoak izango dira informazio horren jatorriak:

- Arriskuen ebaluazioa.
- Prebentzio-ekintzaren plangintza.
- Segurtasun-plana.
- Enpresa-jardueren koordinazioaren aktak.
- Jarraibideak.
- Arauak.
- Lan-metodoak edo -prozedurak.
- ...

Prebentzio Baliabidearen zaintza eskatzen duen egoera bakoitzerako jarraibide berezia egitea komeni da, lana erraz diezaion. Eskuliburu honen **III. Zatian**, prebentzio-baliabidea egotea eska dezaketen jarduera eta prozesu ezberdinen gaineko **Prebentzio Baliabidearentzako Informazio Fitxak** azaltzen dira. Fitxa horiek orokorrak dira, eta Prebentzio Baliabideari zaintza-lanean orientabideak emateko edo jarduera kontrolatzeko jarraibide bereziak prestatzeko gida gisa erabili ahal dira.

## 12. Prebentzio Baliabideen inguruko arau-haustek

Prebentzio Baliabidearen arau-haustek, batik bat, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legean eta Lan Arloko Arau-hauste eta Zigorren Legearen Testu Bateginean jasota daude. Arau-hausteen artean, honako hauek nabarmen daitezke:

- A) Derrigorrezkoa denean prebentzio-baliabiderik **ez egotea**, edo egotearen ondoriozko betekizunak ez betetzea LAAZLeko 12.15.b) artikulua araberako arau-hauste larritzat tipifikatuta dago. Arautegiaren araberako jarduera arriskutsuak edo arrisku berezikoak bada, **arau-hauste oso larritzat** tipifikatuta dago LAAZLeko 13.8.b) artikuluan.
- B) Prebentzio Baliabideei prebentzio-jarduerak garatzeko **beharrezkoak diren bitartekoak ez ematea, arau-hauste larritzat** tipifikatuta dago LAAZLeko 12.15.a) artikuluan.
- C) Larriagotu edo eraldatu ahal diren lanetan edo **arriskuen ebaluazioan edo segurtasun- eta osasun-planean** presentzia eskatzen duten lanetan dauden arriskuak **aintzat ez hartzea, arau-hauste larritzat** tipifikatuta dago LAAZLeko 12.1.b) eta 12.23.a) artikuluetan.

- D) Prebentzio Baliabideak egoteko beharraren inguruko **ekintza zuzentzaileen plangintza** egiteko betebeharra ez betetzea, **arau-hauste larritzat** tipifikatuta dago LAAZLeko 12.6. artikuluan.
- E) Prebentzio Baliabidea edo Izendatutako Langileak zeintzuk diren **jakinaraztearen** inguruko betebeharrak ez betetzea, **arau-hauste larritzat** tipifikatuta dago LAAZLeko 12.8. artikuluan.



## II. ZATIA

# ERANSKINAK

- 
- I. Prebentzio Baliabideak izatea eska dezaketen jarduera, prozesu eta eragiketen zerrenda adierazgarria.
  - II. Prebentzio Baliabidearen izendapen-akta.
  - III. Presentziaren esleipen-akta.
  - IV. Prebentzio-jardueraren Plangintza Eredua.
  - V. Prebentzio Baliabidea egotea eskatzen duen egoeraren zaintza-erregistroa.
  - VI. Lege-erreferentziak eta erreferentzia interesgarriak.
-



## I. Eranskina

### Prebentzio Baliabideak izatea eska dezaketen jarduera, prozesu eta eragiketen zerrenda adierazgarria

LANAK ETA JARDUERAK	DEFINIZIOAK	PREBENTZIO BALIABIDEA EGOTEA BEHARREZKOA EGITEN DUTEN BALDINTZAK	JATORRIA	FITXAK
IGOGAILUAK ETA KARGA- JASOGAILUAK	<p>IGOGAILUA: Definitutako mailetan, gida zurrunetan zehar lekualdatzen den kabina baten laguntzaz erabiltzen den gailua. Giden horizontalaren gaineko inklinazioak 15°C-tik gorakoa izan behar du eta pertsonak eta/edo objektuak garraiatzeko erabiltzen da.</p> <p>KARGA-JASOGAILUA: Definitutako mailetan, objektuak garraiatzeko garbaitxoaz hornitutako jaso gailua. Horretara pertsonak ez sartzeko moduan diseinatuta dago, eta pixka bat inklinatutako gida bertikalean zehar lekualdatzen da.</p>	<p>30 kg-tik gorako masa duten kargak esku maneiatzea eskatzen duen instalazioa, mantentzea eta konponketa.</p> <p>50 kg-tik gorako masa duten elementuak edo gailuak eskuz instalatzea edo kentzea.</p> <p>Baliabide mekaniko egokirik gabe ekipoen trakziozko kableak instalatzea eskatzen duten instalazio-, mantentze-eta konpontze-lanak.</p> <p>Sabaian barandarik ez duten kabinen gainen egin beharreko lanak (sabaia eratzaren eta hutsunearen hormaren arteko tarte librean 30 metrotik gorakoa denean) edo altueratik erorikoan kontra erabili beharreko ekipoa, erorketa gehienez metro batera mugatzen duen gailua duen arnesa ez denean.</p> <p>Igogailu edo karga-jasogailuaren (gorantz lekualda daitezkeenean) kabinaren sabaian egin beharreko lanak, baldin eta lekualdaketa zehar kabina mugitzea galaraz dezakeen blokeo-gailua ez badute.</p> <p>Zuloan egin beharreko lanak, horretan dabilen gailua lurrera hartuta ez badago edo, hutsune berean gailu bat baino gehiago fisikoki bereizi gabe zirkulatzeko ari bada, eta horietako baten bat lurrera hartuta ez badago.</p> <p>Zuloan egin beharreko lanak, hutsune berean gailu bat baino gehiago fisikoki bereizi gabe zirkulatzeko ari bada eta horiek zuloan funtzionamendu gelditzeko sistema (zuloan gelditzeko kita) ez badute.</p> <p>Arnasketa babesteko ekipoa erabiltzea eskatzen duten lanak (zarratuak jotako lekuetara sartzea).</p>	Irizpide Teknikoa*	1 / 3
IGOGAILUAK ETA KARGA- JASOGAILUAK EZ DIREN JASOGAILUAK	<p>IGOGAILUAK ETA KARGA-JASOGAILUAK EZ DIREN JASOGAILUAK Pertsonak edo salgaiak jasotzea helburu duten ekipoa, hala nola: plataforma elektrikoak, plataforma jasotzaileak, eskailera mekanikoak, garabiak, polipastoak eta antzeko beste gailu batzuk.</p>	<p>Igogailua eta karga-jasogailuen baldintza berberak.</p> <p>Ohiko zerbitzuko baldintzetan ez dagoenean gailua funtzionamenduan jartzea erabat beharrezkoa denean.</p> <p>Langileek tentsiopeko eroale elektriko biluzietatik gertu ibili behar dutenean.</p> <p>Zirkulazio-bide edo -erretietara sartu eta horietan gailuren lurrera konektatu gabe dagoenean.</p> <p>Hainbat mantentze- eta konpontze-lan bereziak egiteko.</p>	Irizpide Teknikoa*	2 / 8.2

\* Lan eta Gizarte Segurantzaren 83/2010 eta 39/2004 indargabetuak) zk.ko Irizpide Teknikoetan oinarrituta, egileek Prebentzio Baliabideak egotea beharrezko iratekeen jarduera eta baldintzei buruzko orientabideak.

LANAK ETA JARDUERAK	DEFINIZIOAK	PREBENTZIO BALIABIDEA EGOTEA BEHARREZKOAK EGITEN DUTEN BALDINTZAK	JATORRIA	FITXAK
<p>Lurpeko lanak putzu, galeria, estolda, hobi, sofoetan... tunel, upel, zistema, erreaktore, tanga... barruko lanak</p> <p>EREMU ZARRATUAK</p>	<p>LURPEKO LANAK: Putzu, hobi, galeria edo tuneletan egindako lanak, pertsona lurpean gelditzen denean.</p> <p>EREMU ZARRATUA: Sarrera eta irteera mugatuak eta aireztapen natural desegokia dituzten barrutiak, baldin eta horretan kutsatzailerik toxiko edo erregamiak meka badaitezke edo atmosferan oxigeno gutxi egon badaiteke, eta langileek bertan etengabe jarduteko moduko eremutzat jotzen ez bada.</p>	<p>Gas arriskutsuak pilatzeko, oxigenoko gutxiago atmosferatik sortzeko edo produktu toxikoak pilatzeko arriskua duten eremuetan egiten diren lanak.</p>	<p>Irizpide Teknikoa *</p> <p>Prebentzio Zerbitzuen Arautegiko 22.bis art</p>	<p>3</p>
- ⇒ Lana arrisku-eremuan egiten bada eta trenak iragaiteko arriskua badago, arauzko tartetara «Langileak ohar-tarazteko Txistu» egiteko kartelak jarriko dira.
- ⇒ Lana trenbide bikoitz edo anizkoitzen arrisku-eremuan egiten bada, lana hasi baino lehen, zirkulazioak heltzerakoan langileak gordetzeko egongo diren babeslekuak edo eremuak ezarriko dira.
- ⇒ Lan-ekipo mugikorrek erabiltzeko baldintzak:
  - o Lan-ekipo mugikor batek (automotorea izan ala ez) lan-eremu batean maniobrak egiten dituenean, zirkulazio-arau egokiak ezarri eta errespetatu behar dira.
  - o Oinezko langileak egotea beharrezkoa izatekotan, ekipoek horiek zauritzea galaraziko duten neurri egokiak hartu beharko dira.
  - o Mekanikoki mugitutako lan-ekipo mugikorretan langileak joatea, bakar-bakarrik baimenduko da horretarako egokitutako kokagune seguruetan.
  - o Lekualdaketan zehar lanak egin behar direnean, abiadura egokitu egin beharko da, beharrezkoa izatekotan.
- ⇒ Hori koloreko jantziak eraman beharko dira eta horiek zerrenda islatzaileak eduki beharko dituzte, treneko langileek eta makinistek erraztasunez ezagutarazi eta urrunetik ikusi ahal izateko.

\*Segurtasuneko pilotua: Renfek edo tren-konpainiak baimendutako pertsona. Pertsona hau trenbideko lanak, zirkulazioaren segurtasunaren arabera, zaindu eta babestiaz arduratuko da. Lanak egingo diren eremuan, trenen zirkulazio-abiaduraren eta lan-motaren arabera, beharrezkoa izango da segurtasuneko pilotua edo taldeko agente bat egotea.

**BANAKAKO BABESAK** Zerrenda ez da zehatza.

 <p>Segurtasuneko oinetakoak.</p>	 <p>Burua babesteko kaskoa.</p>
 <p>Ikuspen handiko jantziak.</p>	 <p>Babes mekanikoko eskularruak.</p>

**Fitxa honetako edukia orientagarria da eta enpresaren ondorengo jarduerari buruzko dokumentazioa osatzen du: arriskuen ebaluazioa, segurtasun-plana, jarraibideak...**

## **PREBENTZIO BALIABIDERAKO JARRAIBIDEAK.**

### **AURRETIAZKO FASEA:**

- ⇒ Izendapenarekin batera, eragiketa honen inguruko dokumentazioa jasotzea: arriskuen ebaluazio berezia, segurtasun-plana, prozedura, jarraibidea...
- ⇒ Enpresak emandako zaintza-erregistroa\* jasotzea. Horretan, jarduerak eta/edo arriskuak, nahiz bete beharreko ekintza zehatzerako planifikatutako prebentzio-neurriak barne hartzen dira.
- ⇒ Arku elektrikoaren aurkako banakako babes-ekipo egokiak daudela, horiek egoera onean daudela eta erabili beharreko arropa egokia dela egiaztatzea.
- ⇒ Instalazioa lanak egin ahal izateko aurreikusitako egoeran utzi den egiaztatzea.
- ⇒ Exekuzio-prozedura berezia garatu beharreko lan-motarekin bat datorren aztertzea. Goi-tentsioan, idatzikoa izango da prozedura hau eta onartuta egon beharko du.
- ⇒ Langileek kremaileak, erlojuak, eskuturrekoak eta abar bezalako metalezko elementurik ez daramatela egiaztatzea.
- ⇒ Lan-eremuko seinaleztapena eta/edo mugarritzea aztertzea, baldin eta langileak edo obrakoak ez diren pertsonak eremu horretan sartu eta tentsiodun elementuak erabiltzeko aukera badago.
- ⇒ Eremuko mugarritze eta seinaleztapen egokia egiaztatzea: egin beharreko lanak, eremu arriskutsua, kanpoko pertsonentzat pasatzeko debekua...
- ⇒ Enpresaburuari prebentzio-neurririk ez dagoela nahiz horiek behar besteak edo desegokiak direla jakinaraztea, berehala jardun dezan.
- ⇒ POTENTZIAPEKO lan-metodoan, honakoak ziurtatzea:
  - Langilearen lur eta bestelako faseekiko isolamendua aztertzea.
  - Langilearen isolamenduaren menpe dagoen elementuaren ihes-korrontea egiaztatzea.
  - Tentsiodun elementuetarainoko segurtasun-tarteak egiaztatzen dira, tentsiodun elementua erabiltzerakoan.
  - Jasotzeko elementuak erabili behar badira, hauek lurrera konektatuta eta beste masa batzuekin potentzia berean konektatuta daudela egiaztatzea.
  - Langileen banakako babesak egokiak diren aztertzen da: kanpo-arropa eroalea (prakak, jaka, txanoa, eskularruak eta oinetakoak).
- ⇒ DISTANTZIARAKO lan-metodoan, honakoa ziurtatzea:
  - Pertika isolatzaileen tresnak egoera onean daudela aztertzea. Babesak aztertu behar dira.
  - Hurbiltzeko gutxienerako tarteak uneoro mantenduko direla ziurtatzen da.
- ⇒ KONTAKTUKO lan-metodoan, honakoa ziurtatzea:
  - Aulki isolatzailea egokia eta egonkorra den aztertzen da.
  - Langileen banakako babesak egokiak diren aztertzen da: instalazioko tentsioaren araberako eskularru isolatzaileak.
  - Esku-tresnen estaldura isolatzailea aztertzen da.
  - Zati aktibo eta metalezko elementuetan jarritako babesle isolatzaileak aztertzen dira.
- ⇒ MANIOBRAK, NEURKETAK, ENTSEGUAK ETA EGIAZTAPENAK EGITEN DIRENEAN, honako hauek bermatzea:
  - Probetarako elikadura elektrikoa deskonektatzeko gailua identifikatuta dagoela eta larrialdietan erraz eragin ahal dela egiaztatzen da.
  - Banakako babes-ekipoa eta babes osagarrikoak egoera onean daudela egiaztatzen da.

**LANAREN FASEA:**

**Fase honetan zehar, ahal den neurrian, lan-eremuan egotea ekidin behar da, arriskuan ez egoteko.**

- ⇒ Langileak zereginak ezarritako prebentzio-ekintzak betez egiten dituela eta banakako babes-ekipoak behar bezala erabiltzen dituela zaintzea.
- ⇒ Langileek babes kolektiboko neurriak kentzen ez dituztela egiaztatzea eta, beharrezkoa bada, kasuan-kasuan banakako babes-ekipoa erabiltzen dutela. ¿?
- ⇒ Ezarritako prebentzio-ekintzak arriskueterako eraginkorrak eta egokiak direla egiaztatzea.
- ⇒ Lanean zehar babesturik ez dauden potentzial ezberdineko elementuetarainoko segurtasun-tarteak egiaztatzea, tresnak eta material eroaleak barne hartuta.
- ⇒ Bakar-bakarrik baimendutako pertsoneri utziko zaie sartzen.
- ⇒ Egoeraren ondorioz aurreikusi ez diren arriskurik sortu den zaintzea eta, gertatzekotan, enpresaburuari jakinaraztea, adibidez, eguraldi-baldintza txarretan.
- ⇒ Prebentzio-neurriak behar bezala bete ezean, langileei horiek behar bezala eta berehala betetzeko beharrezko argibideak ematea.
- ⇒ Prebentzio-ekintzen behar bezalako betearazpena zuzendu ezean, enpresaburuari horren berri ematea, beharrezko neurriak har ditzan.

**LANAREN AMAIERAKO FASEA:**

- ⇒ Lanaren aurreko baldintzak lehengorutzen direla egiaztatzea.
- ⇒ Zaintza-ekintza bakoitzaren zaintza-erregistroa beteko da, honakoak jasota: prebentzio-neurrien betetze-maila, irregulartasunak, enpresaburuari egindako jakinarazpenak, etab.

\* Prebentzio-baliabidearen Eskuliburuaren V. Eranskina: Prebentzio Baliabidea izatea eskatzen duen egoeraren zaintza-erregistroa.

**ARRISKU BEREZIAK.** Zerrenda ez da zehatza.

- ⇒ TALKA ELEKTRIKOA, tentsiodun elementuekin (zuzeneko kontaktu elektrikoa), edo ustekabeen tentsiopean jarritako masekin (zeharkako kontaktu elektrikoa) kontaktu egiteagatik.
- ⇒ ERREDURAK, talka elektrikoagatik edo arku elektrikoagatik.
- ⇒ ERORIKOAK EDO KOLPEAK, talka edo arku elektrikoagatik.
- ⇒ SUTEAK EDO LEHERKETAK, elektrizitateak eragindakoak.

**PREBENTZIO NEURRI OROKORRAK**

- ⇒ Behe-tentsioan maniobrak, neurketak, entseguak edo egiaztapenak egiteko, Langileek Baimena izen behar dute: A.
- ⇒ Behe-tentsioan lanak egiteko, Langileek Gaituak izan behar dute: C.
- ⇒ Goi-tentsioan lan egiteko, Langile Gaituek enpresaburuaren idatziko baimena (AE) eduki beharko dute. Lan Buru baten zaintzapean lan egingo dute, eta hori Prebentzio Baliabidearen eginkizunaz arduratzen den Langile Gaitua da.
- ⇒ Idatzizko «exekuzio-prozedura» egon beharko du, eta horrek egin beharreko eragiketak barne hartu eta honako hauek jaso beharko ditu:
  - Hartu behar diren segurtasun-neurriak.
  - Erabili beharreko materiala eta babes-bitartekoak eta, beharrezkoa izatekotan, horiek erabiltzeko eta egoera onean egiaztatzeko jarraibideak.
  - Lana bertan behera uztea eragin dezaketen inguruabarrak.

	Tentsiopeko lanak		Maniobrak, neurketak, entseguak eta egiaztapenak	
	Egitea	Fusible berriak jartzea	Neurketak, entseguak eta egiaztapenak	Tokiko maniobrak
BEHE-TENTSIOA	C	A	A	A
GOI-TENTSIOA	C + AE (laneko buruaren zaintzapean)	C (urrutitik)	C edo C Ak lagunduta	A

**BANAKAKO BABESAK** Zerrenda ez da zehatza.



Arku elektrikorako egokiak eta kontaktuan dagoen langilearentzat inaktinikoak diren diren betaurrekoak edo aurpegiko pantaila.



Suaren aurkako arropa, potentziapean lan egiteko eroalea.



Eskularru mekaniko isolatzaile edo eroaleak (lan-metodoaren arabera), mahukardi isolatzaileak beharrezkoak badira.



Segurtasun-kasko isolatzailea edo eroalea kokots azpiko uhalarekin (lan-metodoaren arabera).



**Fitxa honetako edukia orientagarria da eta enpresaren ondorengo jarduerari buruzko dokumentazioa osatzen du: arriskuen ebaluazioa, segurtasun-plana, jarraibideak...**

### PREBENTZIO BALIABIDERAKO JARRAIBIDEAK.

#### AURRETIAZKO FASEA:

- ⇒ Izendapenarekin batera, eragiketa honen inguruko dokumentazioa jasotzea: arriskuen ebaluazio berezia, segurtasun-plana, prozedura, jarraibidea...
- ⇒ Enpresak emandako zaintza-erregistroa\* jasotzea. Horretan, jarduerak eta/edo arriskuak, nahiz bete beharreko ekintza zehatzerako planifikatutako prebentzio-neurriak barne hartzen dira.
- ⇒ Banakako babes-ekipoak eskura direla eta horien egoera egokia, zein erabili beharreko jantziak egokiak direla egiaztatzea.
- ⇒ Segurtasun-gailuak eta horien funtzionamendua egiaztatzea.
- ⇒ Eremuko mugarritze eta seinaleztapen egokia egiaztatzea: egin beharreko lanak, eremu arriskutsua, kanpoko pertsonentzat pasatzeko debekua...
- ⇒ Ekipoak eta materialak aireko eta lurpeko linea edo bestelako instalazio elektrikoetatik gertu lekualdatu beharra aztertzea, lan-eremua eta zirkulazio-bideak egiaztatuz, eta elementuren bat eraginpean (edo bere arrisku-eremuan) egon daitekeen eta horrela gertatzekotan beharrezko neurriak hartu diren ziurtatuz.
- ⇒ Tentsiodun elementuen arrisku-eremuetara sarterik badago, horien mugarritzeak eta tentsiodun elementuak ondo jarrita dauden eta eraginkorrak diren aztertu eta langileek horien berri duten egiaztatuko da.
- ⇒ Enpresaburuari prebentzio-neurriak ez dagoela nahiz horiek behar bestekoak edo desegokiak direla jakinaraztea, berehala jardun dezan.

#### LANAREN FASEA:

**Fase honetan zehar, ahal den neurrian, lan-eremuan egotea ekidin behar da, arriskuan ez egoteko.**

- ⇒ Langileak zereginak ezarritako prebentzio-ekintzak betez egiten dituela eta banakako babes-ekipoak behar bezala erabiltzen dituela zaintzea.
- ⇒ Langileek babes kolektiboko neurriak kentzen ez dituztela egiaztatzea eta, beharrezkoa bada, kasuan-kasuan banakako babes-ekipoa erabiltzen dutela.
- ⇒ Langileen eta objektuen lan-eremuko mugimendua kontrolatzea, horien ezaugarriak, litezkeen ezusteko lekualdaketak eta lan-plangintzak oinarri izan dituen baldintzak eralda ditzakeen beste edozein inguruabar aintzat hartuta.
- ⇒ Ezarritako prebentzio-ekintzak arriskueterako eraginkorrak eta egokiak direla egiaztatzea.
- ⇒ Bakar-bakarrik baimendutako pertsonen utziko zaie sartzan.
- ⇒ Egoeraren ondorioz aurreikusirik gabeko arriskuak azaltzen diren zaintzea eta enpresaburuari jakinaraztea.
- ⇒ Prebentzio-neurriak behar bezala bete ezean, langileei horiek behar bezala eta berehala betetzeko beharrezko argibideak ematea.
- ⇒ Prebentzio-ekintzen behar bezalako betearazpena zuzendu ezean, enpresaburuari horren berri ematea, beharrezko neurriak har ditzan.

#### LANAREN AMAIERAKO FASEA:

- ⇒ Lanaren aurreko baldintzak lehengoratzan direla egiaztatzea.
- ⇒ Zaintza-ekintza bakoitzaren zaintza-erregistroa beteko da, honakoak jasota: prebentzio-neurrien betetze-maila, irregulartasunak, enpresaburuari egindako jakinarazpenak, etab.

\* Prebentzio-baliabidearen Eskuliburuaren V. Eranskina: Prebentzio Baliabidea izatea eskatzen duen egoeraren zaintza-erregistroa.

**ARRISKU BEREZIAK.** Zerrenda ez da zehatza.

- ⇒ TALKA ELEKTRIKOA, tentsiodun elementuekin (zuzeneko kontaktu elektrikoa), edo ustekabeen tentsiopean jarritako masekin (zeharkako kontaktu elektrikoa) kontaktu egiteagatik.
- ⇒ ERREDURAK, talka elektrikoagatik edo arku elektrikoagatik.
- ⇒ ERORIKOAK EDO KOLPEAK, talka edo arku elektrikoagatik.
- ⇒ SUTEAK EDO LEHERKETAK, elektrizitateak eragindakoak.

**PREBENTZIO NEURRI OROKORRAK**

- ⇒ Lana behe-tentsiotik gertu prestatzen bada, Baimendutako Langile batek prestatuko du lan hori eta horren bideragarritasuna ezarri beharko du. A.
- ⇒ Lana goi-tentsiotik gertu prestatzen bada, Langile Gaitu batek prestatuko du lan hori eta horren bideragarritasuna ezarri beharko du. C.
- ⇒ Gertuko lanak Baimendutako Langile batek egin behar du: A; edo bestela, beraren zaintzapean, behe-tentsioko instalazioetan izan ezik. Horietan, edozein Langilek egin dezake lana: T, baina behar bezala prestatuta egon beharko du.

	Gertuko lanak	
	Prestatzea	Egitea
BEHE-TENTSIOA	A	T
GOI-TENTSIOA	C	A edo T Ak zaiunduta

- ⇒ Langileek arrisku-eremutik kanpo egon beharko dute eta, lanaren arabera, ahalik eta urrunen.
- ⇒ Tentsiodun elementuen kopurua eta tentsiodun elementuen arrisku-eremuak ahalik eta gutxienak izateko beharrezko neurriak hartuko dira. Horretarako, pantailak, hesiak, inguratzaileak edo babesle isolatzaileak jarriko dira, eta horien ezaugarriek (mekanikoak eta elektrikoak) eta instalatzeko moduak babesteko eraginkorrak direla bermatu beharko dute.
- ⇒ Hartutako neurriak izanda, tentsiodun elementuak badaude eta horien arrisku-eremuetara hel badaiteke, honako hauek egin beharko dira:
  - Lan-eremua eta arrisku-eremuak bereizi; bereizketa arrisku-eremu bakoitzarekin egingo da material egokiaz eta eraginkorra izango da.
  - Zuzenean zein zeharka eraginpean dauden langileei dauden arriskuen, tentsiodun elementuen egoeraren, lan-eremuen mugen eta arrisku-eremuan ez sartzeko hartu beharreko segurtasun-neurri guztien berri eman.
- ⇒ Aireko eta lurpeko linea edo bestelako instalazio elektrikoetatik gertu dauden ekipoak eta materialak lekualdatzean honako hauek egin beharko dira:
  - Arrisku eta gertuko eremuak ezarri, lan-eremuak eta zirkulazio-bideak mugarritzeko. Horretarako, honako hauek izango dira kontuan: tentsioa eta tentsiodun elementuen kokapena, debekuaren eremuak, ekipo edo materialen litezkeen lekualdaketa eta mugimenduak eta exijitutako gehienezko tartearak.
  - Elementuren batera hel badaiteke eta horren isolamendua apurtu ahal bada, linea horien edo elementuen tentsioa desbideratu edo ezereztatu beharko da, edo bestela, inguruabar hori ekiditeko beharrezkoak diren prebentzio-neurriak hartu.
- ⇒ Ezarritako jarraibideak betetzerik egon ezean, lana tentsiopeko lan baten antzera garatu beharko da.

**BANAKAKO BABESAK** Zerrenda ez da zehatza.

 <p>Dagozkion tentsioetarako homologatutako kaskoa.</p>	 <p>Tentsiopean lan egiteko homologatutako eskularruak (goi-tentsioan ez erabili zuzenean tentsiodun zatien gainean).</p>
 <p>Aurpegi osoa estaltzen duen pantaila.</p>	 <p>Suaren kontrako arropa.</p>

**Fitxa honetako edukia orientagarria da eta enpresaren ondorengo jarduerari buruzko dokumentazioa osatzen du: arriskuen ebaluazioa, segurtasun-plana, jarraibideak...**

### **PREBENTZIO BALIABIDERAKO JARRAIBIDEAK.**

#### **AURRETIAZKO FASEA:**

- ⇒ Izendapenarekin batera, eragiketa honen inguruko dokumentazioa jasotzea: arriskuen ebaluazio berezia, segurtasun-plana, prozedura, jarraibidea...
- ⇒ Enpresak emandako zaintza-erregistroa\* jasotzea. Horretan, jarduerak eta/edo arriskuak, nahiz bete beharreko ekintza zehatzerako planifikatutako prebentzio-neurriak barne hartzen dira.
- ⇒ Banakako babes-ekipoak eskura direla eta horien egoera egokia, zein erabili beharreko jantziak egokiak direla egiaztatzea.
- ⇒ Segurtasun-gailuak eta horien funtzionamendua egiaztatzea.
- ⇒ Eremuko mugaritze eta seinaleztapen egokia egiaztatzea: egin beharreko lanak, eremu arriskutsua, kanpoko pertsonentzat pasatzeko debekua...
- ⇒ Lana egin baino lehen honako hauek egiaztatzea: itzaltzeko baliabideak eta ekipoak dauden, aurreikus daitezkeen su-motaren araberakoak diren eta egoera onean dauden.
- ⇒ Enpresaburuari prebentzio-neurriak ez dagoela nahiz horiek behar bestekoak edo desegokiak direla jakinaraztea, berehala jardun dezan.

#### **LANAREN FASEA:**

**Fase honetan zehar, ahal den neurrian, lan-eremuan gotea ekidin behar da, arriskuan ez egoteko.**

- ⇒ Langileak zereginak ezarritako prebentzio-ekintzak betez egiten dituela eta banakako babes-ekipoak behar bezala erabiltzen dituela zaintzea.
- ⇒ Langileek babes kolektiboko neurriak kentzen ez dituztela egiaztatzea eta, beharrezkoa bada, kasuan-kasuan banakako babes-ekipoa erabiltzen dutela.
- ⇒ Material eta ekipoen erabilera kontrolatzea, sutea sor dezaketen marruskadura, kolpe, txinpart, eta abarrik sor ez dadin.
- ⇒ Ezarritako prebentzio-ekintzak arriskueterako eraginkorrak eta egokiak direla egiaztatzea.
- ⇒ Bakar-bakarrik baimendutako pertsonen utziko zaie sartzan.
- ⇒ Egoeraren ondorioz aurreikusirik gabeko arriskuak azaltzen diren zaintzea eta enpresaburuari jakinaraztea.
- ⇒ Prebentzio-neurriak behar bezala bete ezean, langileei horiek behar bezala eta berehala betetzeko beharrezko argibideak ematea.
- ⇒ Prebentzio-ekintzen behar bezalako betearazpena zuzendu ezean, enpresaburuari horren berri ematea, beharrezko neurriak har ditzan.

#### **LANAREN AMAIERAKO FASEA:**

- ⇒ Lanaren aurreko baldintzak lehengoratzan direla egiaztatzea.
- ⇒ Zaintza-ekintza bakoitzaren zaintza-erregistroa beteko da, honakoak jasota: prebentzio-neurrien betetze-maila, irregulartasunak, enpresaburuari egindako jakinarazpenak, etab.

\* Prebentzio-baliabidearen Eskuliburuaren V. Eranskina: Prebentzio Baliabidea izatea eskatzen duen egoeraren zaintza-erregistroa.

**ARRISKU BEREZIAK.** Zerrenda ez da zehatza.

- ⇒ TALKA ELEKTRIKOA, tentsiodun elementuekin (zuzeneko kontaktu elektrikoa), edo ustekabeen tentsiopean jarritako masekin (zeharkako kontaktu elektrikoa) kontaktu egiteagatik.
- ⇒ ERREDURAK, talka elektrikoagatik edo arku elektrikoagatik.
- ⇒ SUTE ARRISKUA, jatorri elektrikokoa atmosfera sukoietan
- ⇒ LEHERKETA ARRISKUA, jatorri elektrikokoa atmosfera leherkorretan
- ⇒ GAS EDO PRODUKTU KIMIKOAK ARNASTEA

**PREBENTZIO NEURRI OROKORRAK**

- ⇒ Lan-eremuan substantzia sukoiak izatea ahal den gehien mugatu eta kontrolatzen duen eta, atmosfera leherkorra egotekotan, edo sortu ahal bada, su-fokuak sortzea galaraziko duen prozedura bati jarraituz egiten dira lanak.
- ⇒ Lanak atmosfera leherkor batean egiten direnean, prozedurak idatziz jasota egon beharko du.
- ⇒ Debekatuta dago tentsiopeko lanak edo eragiketak (lanparak, fusibleak, etab. aldatzea), horrelako baldintzetan erabiltzeko sortu diren eta araudi berezi aplikagarria betetzen duten instalazio eta ekipoekin egiten direnean izan ezik.
- ⇒ Lanak sute-arriskuko lekuetan egiten badira, gaitu eta baimendutako langileek egin beharko dituzte.
- ⇒ Lanak leherketa-arriskuko lekuetan egiten badira, langile adituek egin beharko dituzte.
- ⇒ Karga estatikoak sortu edo pilatu ahal diren lekuetan egiten diren lanetarako, ondoren zerrendatzen diren neurrietako bat edo bat baino gehiago hartu beharko dira, kasuan kasuko aukera eta inguruabar berezien arabera:
  - Marruskadura-prozesuak ezabatu edo murriztea.
  - Ahal den heinena, hautseztaketa, ihintzadura edo erorketa librea sortzen dut prozesuak ekiditea.
  - Material antiestatikoak (poleak, moketak, oinetakoak, etab.) erabiltzea edo horien konduktibitatea areagotzea (hezetasun erlatiboa areagotuz, gehigarriak edo bestelakoak erabiliz).
  - Karga har dezaketen materialak lurrera eta, beharrezkoa izatekotan, elkarren artean konektatzea, eta bereziki, isolatutako eroaleak edo metalezko elementuak.
  - Karga elektrostatisak ezabatzeko gailu bereziak erabiltzea. Kasu honetan, instalazioak ez ditu langileak erradiazio arriskutsuen eraginpean edukiko.
  - Karga elektrostatisak ez pilatzea bermatuko duen edozein prozesu zehatzerako beste edozein neurri.

**BANAKAKO BABESAK** Zerrenda ez da zehatza.



Dagozkion tentsioetarako homologatutako kaskoa.



Tentsiopean lan egiteko homologatutako esku-larruak.



Aurpegi osoa estaltzen duen pantaila.



Suaren kontrako arropa.

**Fitxa honetako edukia orientagarria da eta enpresaren ondorengo jarduerari buruzko dokumentazioa osatzen du: arriskuen ebaluazioa, segurtasun-plana, jarraibideak...**

## **PREBENTZIO BALIABIDERAKO JARRAIBIDEAK**

### **AURRETIAZKO FASEA:**

- ⇒ Izendapenarekin batera, eragiketa honen inguruko dokumentazioa jasotzea: arriskuen ebaluazio berezia, segurtasun-plana, prozedura, jarraibidea...
- ⇒ Enpresak emandako zaintza-erregistroa\* jasotzea. Horretan, jarduerak eta/edo arriskuak, nahiz bete beharreko ekintza zehatzerako planifikatutako prebentzio-neurriak barne hartzen dira.
- ⇒ Banakako babes-ekipoak eskura direla eta horien egoera egokia, zein erabili beharreko jantziak egokiak direla egiaztatzea.
- ⇒ Prebentzioko neurri orokorren arabera, erabilitako ekipoen eta lan-lekuaren segurtasun-baldintzak egokiak direla egiaztatzea.
- ⇒ Beharrezkoa izanez gero, jarduera hasi baino lehen gasen proba egitea (LEL delakoaren irakurketak %0eko izan behar du).
- ⇒ Eremuko itzaltze-baliabideak eta horiek egoera egokian daudela egiaztatzea.
- ⇒ Eremuko mugarritze eta seinaleztapen egokia egiaztatzea: egin beharreko lanak, eremu arriskutsua, kanpoko pertsonentzat pasatzeko debekua...
- ⇒ Enpresaburuari prebentzio-neurririk ez dagoela nahiz horiek behar bestekoak edo desegokiak direla jakinaraztea, berehala jardun dezan.

### **LANAREN FASEA:**

**Fase honetan zehar, ahal den neurrian, lan-eremuan egotea ekidin behar da, arriskuan ez egoteko.**

- ⇒ Langileak zereginak ezarritako prebentzio-ekintzak betez egiten dituela eta banakako babes-ekipoak behar bezala erabiltzen dituela zaintzea.
- ⇒ Langileek babes kolektiboko neurriak kentzen ez dituztela egiaztatzea eta, beharrezkoa bada, kasuan-kasuan banakako babes-ekipoa erabiltzen dutela.
- ⇒ Ezarritako prebentzio-ekintzak arriskueterako eraginkorrak eta egokiak direla egiaztatzea.
- ⇒ Bakar-bakarrik baimendutako pertsonen utziko zaie sartzan.
- ⇒ LEL delakoaren irakurketa etengabe %0ekoa dela egiaztatzea (atmosfera leherkorretan lan egiten denean).
- ⇒ Egoeraren ondorioz aurreikusirik gabeko arriskuak azaltzen diren zaintzea eta enpresaburuari jakinaraztea
- ⇒ Prebentzio-neurriak behar bezala bete ezean, langileei horiek behar bezala eta berehala betetzeko beharrezko argibideak ematea.
- ⇒ Prebentzio-ekintzen behar bezalako betearazpena zuzendu ezean, enpresaburuari horren berri ematea, beharrezko neurriak har ditzan.

### **LANAREN AMAIERAKO FASEA:**

- ⇒ Lanaren aurreko baldintzak lehengoratzan direla egiaztatzea.
- ⇒ Zaintza-ekintza bakoitzaren zaintza-erregistroa beteko da, honakoak jasota: prebentzio-neurrien betetze-maila, irregulartasunak, enpresaburuari egindako jakinarazpenak, etab.

\* Prebentzio-baliabidearen Eskuliburuaren V. Eranskina: Prebentzio Baliabidea izatea eskatzen duen egoeraren zaintza-erregistroa.

**ARRISKU BEREZIAK.** Zerrenda ez da zehatza.

- ⇒ SUTEA, material erregarriak daudenean.
- ⇒ LEHERKETA, atmosferan substantzia erregarri eta/edo sukoiien hauts, gas eta/edo lurrunik daudenean.

**PREBENTZIO NEURRI OROKORRAK**

- ⇒ Aldez aurretik Lan-baimen bat eman beharko da, eta horrek, adierazitako leku, ekipo, lan eta datetarako balio-ko du.
- ⇒ Aurrez, berotan egindako lanak debekatzea, hegazkor erregarri edo sukoiak pilatuta dauden atmosfera zarratua dagoen lekuetan. Presiopeko ontzietan, hoditerietan edo leku zarratuetan berotan egin beharreko lanak bakarrik egingo lirateke, horiek isolatu, aireztatu eta geldotu badira.
- ⇒ Atmosfera leherkorra dagoela aurreikusten denean, beharrezkoa izan daiteke gasak esplosimetroaren bitartez neurtzea.
- ⇒ Bero- edo su-sorgailua baldintza egokietan mantentzea.
- ⇒ Aireztapen- eta argiztapen-baldintza egokiak mantentzea.
- ⇒ Lan-eremuaren inguruan, 10 metroko segurtasun tartea ezartzea.
- ⇒ Eremuan lan egiten duen langileak babesteko pantailak jartzea.
- ⇒ Lan-lekua txukun eta garbi edukitzea. Lurra eskobatu eta material erregarririk (olioak, koipeak...) gabe utzi behar da.
- ⇒ Erregai eta likido erregarriek estalki erregaitz edo metalezko ezkutuez babestuta egon behar dute.
- ⇒ Ateak itxi eta hormetako bao guztiak estaltzea. Hodiak pasatzen diren hormetako baoak zigilatzea. Zoruak erregarriak badira, hezetu, hareaz estali edo bestelako babes-formak erabiliko dira.
- ⇒ Lan-lekuan sutearen aurkako ekipoa egitea: sute-ahoa, mahuka eta/edo suaren araberako su-itzaltzailea.
- ⇒ Lan-puntuaren azpian txinpartak jasotzeko estalkiak jartzea.
- ⇒ Unitate itxiak (biltegiak, ontzia, eroanbideak...) badira, lurrin erregarrien ontzi eta hodi guztiak purgatzea.

**BANAKAKO BABESAK** Zerrenda ez da zehatza.



Arnasketa babesteko maskara.



Segurtasuneko oinetakoak.



Mantala, mahuka-erdiak, maskara.



Babeseko eskularruak.

**Fitxa honetako edukia orientagarria da eta enpresaren ondorengo jarduerari buruzko dokumentazioa osatzen du: arriskuen ebaluazioa, segurtasun-plana, jarraibideak...**

### **PREBENTZIO BALIABIDERAKO JARRAIBIDEAK.**

#### **AURRETIAZKO FASEA:**

- ⇒ Izendapenarekin batera, eragiketa honen inguruko dokumentazioa jasotzea: arriskuen ebaluazio berezia, segurtasun-plana, prozedura, jarraibidea...
- ⇒ Enpresak emandako zaintza-erregistroa\* jasotzea. Horretan, jarduerak eta/edo arriskuak, nahiz bete beharreko ekintza zehatzerako planifikatutako prebentzio-neurriak barne hartzen dira.
- ⇒ Instalazioko segurtasun-elementuak egiaztatzea. Hotz-ganberei dagokienez, honako hauek egiaztatzea:
  - Gasak (aplikatzekotan) detektatzeko sistemak
  - Atea barrutik irekitzeko sistema.
  - Alarma-sistemak.
  - Kanpoko argi-seinalea.
  - Aireztapena, makina-gelan.
- ⇒ Banakako babes-ekipoak dauden (beharrezkoa izatekotan, arnasketa-babesa) eta horiek egoera egokian dauden egiaztatzea.
- ⇒ Langileak arropa, oinetako, eskularru, txano,... egokiak daramatzen egiaztatzea.
- ⇒ Enpresaburuari prebentzio-neurriak ez dagoela nahiz horiek behar bestekoak edo desegokiak direla jakinaraztea, berehala jardun dezan.

#### **LANAREN FASEA:**

- ⇒ Langileak bere lana ezarritako prebentzio-ekintzak betez egiten duen zaintzea, eta besteak beste:
  - banakako babes-ekipoak behar bezala erabiltzen dituen.
  - hotz-ganbera motaren arabera, behar besteko atsedena egiten diren.
- ⇒ Ezarritako prebentzio-ekintzak arriskueterako eraginkorrak eta egokiak direla egiaztatzea.
- ⇒ Langile bakarra egotekoan, horren egoera orduro egiaztatzea (beharrezkoa izatekotan, ohartarazteko sistema erabili behar da).
- ⇒ Egoeraren ondorioz aurreikusirik gabeko arriskuak azaltzen diren zaintzea eta enpresaburuari jakinaraztea.
- ⇒ Prebentzio-neurriak behar bezala bete ezean, langileei horiek behar bezala eta berehala betetzeko beharrezko argibideak ematea.
- ⇒ Prebentzio-ekintzen behar bezalako betearazpena zuzendu ezean, enpresaburuari horren berri ematea, beharrezko neurriak har ditzan.

#### **LANAREN AMAIERAKO FASEA:**

- ⇒ Lana amaitzean, hotz-ganbera barruan inor ez dagoela egiaztatzea.
- ⇒ Lanaren aurreko baldintzak lehengoratu direla egiaztatzea.
- ⇒ Zaintza-ekintza bakoitzaren zaintza-erregistroa beteko da, honakoak jasota: prebentzio-neurrien betetze-maila, irregulartasunak, enpresaburuari egindako jakinarazpenak, etab.

\* Prebentzio-baliabidearen Eskuliburuaren V. Eranskina: Prebentzio Baliabidea izatea eskatzen duen egoeraren zaintza-erregistroa.

**ARRISKU BEREZIAK.** Zerrenda ez da zehatza.

- ⇒ HOTZAREN ERAGINPEAN EGOTEA
- ⇒ IHES EGINDAKO GASAK ARNASTEA
- ⇒ BARRUAN HARRAPATUTA GELDITZEA, atea ezustean itxi delako.

**PREBENTZIO NEURRI OROKORRAK.**

- ⇒ Gas-isuri edo -ihesa gertatzekotan nola jokatu behar duen jakiteko prestakuntza izan beharko du langileak. Jarraibideek ondo ikusteko moduko leku batean egon behar dute.
- ⇒ Hotz-ganberak hotza sortzeko erabiltzen diren gas-isuriak edo -ihesak detektatzeko sistema bat eduki beharko du, eta xurgapen bidezko aireztapen mekanikoko sistema bat eduki beharko du, gas hori lehenbailehen kanporatzeko.
- ⇒ Hotz-ganberak ateari barrutik irekitzeko sistema bat eta alarma-etengailuak (deia, tinbrea, sirenak eta telefonoa, horietatik batek energia-iturri propioa izan beharko duela) eduki beharko ditu.
- ⇒ Barruan langileak daudela adierazten duen argi-seinale bat egon behar da kanpoaldean.
- ⇒ Ganbera barruan lan egiten duen langileak jantzi berogarri egokiak eraman beharko ditu, hala nola: txanoa, oinetako eta eskularru isolatzaileak, edo bere lana egiteko beharrezko beste edozein babes.
- ⇒ Ganbera barruan zenbat denbora egongo den izan beharko da aintza, eta barruko tenperaturaren arabera honako denbora-tarte hauek izango dira gehienekoak:
  - A) **0 °Ctik -5 °Cra:** Ganbera barruan etenik gabe lanean emandako 3 ordu, 10 minutuko atsedena.
  - B) **-5 °Ctik -18°Cra:** Ganbera barruan etenik gabe lanean emandako ordu, 15 minutuko atsedena.  
**Ganbera barruan, gehienez ere, 6 ordu egongo da jardunaldi bakoitzean.**
  - C) **T < -18 °C (±3 °C):** Ganbera barruan etenik gabe emandako 45 minuturo, 15 minutuko atsedena.  
**Ganbera barruan, gehienez ere, 6 ordu egongo da jardunaldi bakoitzean.**
- ⇒ R-717 (amoniakoa) edo R-764 (anhidrido sulfurosoa) Hozgarriak edo ikusmenerako bestelako agente kaltegarriak erabiltzen dituzten ganberetan, derrigorrezkoa da ondo ikusteko moduko tokian arnasketa eta begiak babesteko ekipoa:
  - A) 50 Kg.< Karga < 500 Kg.: Gasaren aurkako 2 maskara.
  - B) Karga > 500 Kg.: 2 ekipo autonomo, eta tartean, gasen aurkako jantzi estankoa.
- ⇒ Anhidrido karbonikoa erabiltzen duten instalazioetan, aire edo oxigenoko arnasketa-gailu autonomoak erabiltzeko dira, eta debekatuta daude iragazkia dutenak.
- ⇒ Arnasketa-gailuak egoera, modu eta leku egokian mantendu behar dira, eta istripua egotekotan erraz hartzeko moduko lekuan egon. Aldizka, horien eraginkortasun-egoera egiaztatuko da, langileek erabiliz.
- ⇒ 0°Ctik beherako tenperaturan edo atmosfera artifizialarekin lan egiten duten ganberetan, debekatuta dago barruan pertsona bakar batek lan egitea (ezinezkoa bada, 2. pertsona batek orduro egiaztatuko du haren egoera).

**BANAKAKO BABESAK.**

 <p>Hotz eta hezetasunaren aurkako segurtasuneko oinetakoak.</p>	 <p>Txanoa, oinetako eta eskularru isolatzaileak, edo bere lana egiteko beharrezko beste edozein babes.</p>
 <p>Hotzaren aurka babesteko eskularruak.</p>	  <p>Arnasketa babesteko 2 maskara edo 2 ekipo autonomo traje eta guzti.</p>



**Fitxa honetako edukia orientagarria da eta enpresaren ondorengo jarduerari buruzko dokumentazioa osatzen du: arriskuen ebaluazioa, segurtasun-plana, jarraibideak...**

## PREBENTZIO BALIABIDERAKO JARRAIBIDEAK

### AURRETIAZKO FASEA:

- ⇒ Izendapenarekin batera, eragiketa honen inguruko dokumentazioa jasotzea: arriskuen ebaluazio berezia, segurtasun-plana, prozedura, jarraibidea...
- ⇒ Enpresak emandako zaintza-erregistroa\* jasotzea. Horretan, jarduerak eta/edo arriskuak, nahiz bete beharreko ekintza zehatzerako planifikatutako prebentzio-neurriak barne hartzen dira.
- ⇒ Banakako babes-ekipoak eskura direla eta horien egoera egokia, zein erabili beharreko jantziak egokiak direla egiaztatzea.
- ⇒ Lan-lekuko baldintzak eta, egon badaude, sua itzaltzeko bitartekoak egiaztatzea.
- ⇒ Lan-ekipoen eta lan-lekuen segurtasun-baldintzak egiaztatzea, honako hauek barne hartuta.
  - Komunikazio-bideak.
  - Alerta- eta sorospen-baliabideak.
  - Lan-lekuko presio-mailari buruzko beharrezko informazioak.
  - Arnastutako gasen izaera.
  - Dauden gas-kopuruak.
- ⇒ Enpresaburuari prebentzio-neurriak ez dagoela nahiz horiek behar bestekoak edo desegokiak direla jakinaraztea, berehala jardun dezan.

### LANAREN FASEA:

**Tokiko presio atmosferikoaren menpeko leku batean kokatutako kontrol-gune batetik zaindu beharko da.**

- ⇒ Langileak zereginak ezarritako prebentzio-ekintzak betez egiten dituela eta banakako babes-ekipoak behar bezala erabiltzen dituela zaintzea.
- ⇒ Langileek babes kolektiboko neurriak kentzen ez dituztela egiaztatzea eta, beharrezkoa bada, kasuan-kasuan banakako babes-ekipoa erabiltzen dutela.
- ⇒ Ezarritako prebentzio-ekintzak arriskueterako eraginkorrak eta egokiak direla egiaztatzea.
- ⇒ Bakar-bakarrik baimendutako pertsonen utziko zaie sartzen.
- ⇒ Egoeraren ondorioz aurreikusirik gabeko arriskuak azaltzen diren zaintzea eta enpresaburuari jakinaraztea
- ⇒ Prebentzio-neurriak behar bezala bete ezean, langileei horiek behar bezala eta berehala betetzeko beharrezko argibideak ematea.
- ⇒ Prebentzio-ekintzen behar bezalako betearazpena zuzendu ezean, enpresaburuari horren berri ematea, beharrezko neurriak har ditzan.

### LANAREN AMAIERAKO FASEA:

- ⇒ Lana amaitu ostean langileak adierazitako osasun-kontrolak pasatu dituela egiaztatzea.
- ⇒ Lanaren aurreko baldintzak lehengorutzen direla egiaztatzea.
- ⇒ Zaintza-ekintza bakoitzaren zaintza-erregistroa beteko da, honakoak jasota: prebentzio-neurrien betetze-maila, irregulartasunak, enpresaburuari egindako jakinarazpenak, etab.

\* Prebentzio-baliabidearen Eskuliburuaren V. Eranskina: Prebentzio Baliabidea izatea eskatzen duen egoeraren zaintza-erregistroa.

**ARRISKU BEREZIAK.** Zerrenda ez da zehatza.

- ⇒ ITOTZEA, murgiltzeagatik.
- ⇒ ASFIXIA: Aireko O<sub>2</sub> kontzentrazioa %18tik beherakoa bada. O<sub>2</sub> kontsumitu egin delako edo beste gas batzuk lekualdatu direlako gertatzen da hau.
- ⇒ SUTEA ETA LEHERKETA: Substantzia sukoiaren kontzentrazioa gutxieneko muga sukoiaren %25etik gorakoa bada.
- ⇒ SUBSTANTZAI TOXIKO-KALTEGARRIEN ERAGINPEAN EGOTEA: Gas, hauts edo lurrun toxiko edo kaltegarriak badaude.

**PREBENTZIO NEURRI OROKORRAK**

- ⇒ Langileen kaxoirako irteera eta sarrera, konpresioa eta deskonpresioa, Obra Buruaren edo horren ordeko pertsona baten zaintza eta erantzukizunpean egin behar dira beti. Pertsona hori ezingo da kaxoitik urrundu barruan langileak lanean dauden beharrenean edo konpresio eta deskonpresioaldietan.
- ⇒ Urpeko lan profesionaletarako, enpresak urpekaritzako eragiketa gainbegiratu eta kontrolatzeko izendatutako urpekaritzako talde-burua egin behar da.
- ⇒ Urpekaritzako talde-burua, garatu beharreko eragiketa burutzeko titulazio eta espezialitate egokia duen urpekaria izango da. Gainera, urpekaritzako istripuetarako lehen laguntzako ikastaroa eginga izan behar du.
- ⇒ Egin beharreko lana eta/edo sakoneraren arabera indarrean dagoen legeriak horrelako langileentzat ezarritako prestakuntza edo titulazioa.
- ⇒ Langileen osasun-zaintza berezia eta dagokion gaikuntza-ziurtagiria.
- ⇒ Bitarteko eta ekipo egokien bidezko lan-prozedura.
- ⇒ Bakar-bakarrik, urpean erabiltzeko ezarritako makinak eta osagai bereziak erabiliko dira.
- ⇒ Babes-ekipo egokiak erabiltzea.

**BANAKAKO BABESAK** Zerrenda ez da zehatza



Lanerako eskularru egokiak eta, hala bada, gorkio, babes termikodunak.



Lanerako jantzi egokiak eta, hala bada, gorkio, babes termikodunak.



Gasen eta/edo hautsaren aurkako maskara, hala bada, gorkio.



Segurtasuneko betaurrekoak.

**Fitxa honetako edukia orientagarria da eta enpresaren ondorengo jarduerari buruzko dokumentazioa osatzen du: arriskuen ebaluazioa, segurtasun-plana, jarraibideak...**

## **PREBENTZIO BALIABIDERAKO JARRAIBIDEAK**

### **AURRETIAZKO FASEA:**

- ⇒ Izendapenarekin batera, eragiketa honen inguruko dokumentazioa jasotzea: arriskuen ebaluazio berezia, segurtasun-plana, prozedura, jarraibidea...
- ⇒ Enpresak emandako zaintza-erregistroa\* jasotzea. Horretan, jarduerak eta/edo arriskuak, nahiz bete beharreko ekintza zehatzerako planifikatutako prebentzio-neurriak barne hartzen dira.
- ⇒ Banakako babes-ekipoak direla eta horiek egoera egokian daudela egiaztatzea.
- ⇒ Langileek dosimetro pertsonala dutela egiaztatzea.
- ⇒ Segurtasun-gailuak eta horien funtzionamendua egiaztatzea:
- ⇒ Eremuko mugaritze eta seinaleztapen egokia egiaztatzea: egin beharreko lanak, eremu arriskutsua, kanpoko pertsonentzat pasatzeko debekua...
- ⇒ Enpresaburuari prebentzio-neurriak ez dagoela nahiz horiek behar bestekoak edo desegokiak direla jakinaraztea, berehala jardun dezan.

### **LANAREN FASEA:**

**Fase honetan zehar, ahal den neurrian, lan-eremuan egotea ekidin behar da, arriskuan ez egoteko.**

- ⇒ Langileak zereginak ezarritako prebentzio-ekintzak betez egiten dituela eta banakako babes-ekipoak behar bezala erabiltzen dituela zaintzea.
- ⇒ Langileek babes kolektiboko neurriak ezereztatzen ez dituztela egiaztatzea.
- ⇒ Ezarritako prebentzio-ekintzak arriskueterako eraginkorrak eta egokiak direla egiaztatzea
- ⇒ Bakar-bakarrik baimendutako pertsonen utziko zaie sartzen.
- ⇒ Egoeraren ondorioz aurreikusirik gabeko arriskuak azaltzen diren zaintzea eta enpresaburuari jakinaraztea.
- ⇒ Prebentzio-neurriak behar bezala bete ezean, langileei horiek behar bezala eta berehala betetzeko beharrezko argibideak ematea.
- ⇒ Prebentzio-ekintzen behar bezalako betearazpena zuzendu ezean, enpresaburuari horren berri ematea, beharrezko neurriak har ditzan..

### **LANAREN AMAIERAKO FASEA:**

- ⇒ Lanaren aurreko baldintzak lehengoratzten direla egiaztatzea.
- ⇒ Zaintza-ekintza bakoitzaren zaintza-erregistroa beteko da, honakoak jasota: prebentzio-neurrien betetze-maila, irregulartasunak, enpresaburuari egindako jakinarazpenak, etab.

\* Prebentzio-baliabidearen Eskuliburuaren V. Eranskina: Prebentzio Baliabidea izatea eskatzen duen egoeraren zaintza-erregistroa.

**ARRISKU BEREZIAK. Zerrenda ez da zehatza.**

⇒ ERRADIAZIO IONIZATZAILEEN ARRISKUA

**PREBENTZIO NEURRI OROKORRAK**

**INSTALAZIOEK HONAKO HAUEK BETE BEHARKO DITUZTE:**

⇒ Erradiazio ionizatzaileen arriskua duten lan-lekuek eremu-motaren arabera identifikatuta eta mugarrituta egon beharko dute:



**EREMU ERRADIOLOGIKOEN SAILKAPENA**

EREMUA	SEINALEZTAPENA	ARRISKU ERRADIOLOGIKOA
Zainduta	Hirusta gris urdinxka	Kanpo-irradiazioa. Kutsadura. Multzoa
Kontrolatuta	Hirusta berdea	Kanpo-irradiazioa. Kutsadura. Multzoa
• Egonaldi mugatua	Hirusta horia	Kanpo-irradiazioa. Kutsadura. Multzoa
• Araututako egonaldia	Hirusta laranja	Kanpo-irradiazioa. Kutsadura. Multzoa
• Sarrera debekatua	Hirusta gorria	Kanpo-irradiazioa. Kutsadura. Multzoa

- ⇒ Kontrolatutako edo zaindutakotzat sailkatutako eremuetan lan-giroaren erradiologia-zaintza egin beharko da.
- ⇒ Kontrolatutako eta/edo zaindutako eremuak dituzten instalazioen irteeran, erradiazioa detektatzeko ekipoak izan beharko dituzte, hala pertsonentzat, nola babes-ekipoetarako.
- ⇒ Kontrolatutako eremuetan erradiazio ionizatzaileen eraginpean egoteko arriskua badago, langileek banakako dosimetroa izan beharko dute.
- ⇒ Eremu horietara sartzen diren pertsonak baimena eduki beharko dute. Gainera, instalazio erradiologikoaren titularrak ezarritako prozeduraren arabera egindako jarraibidearen araberako informazioa eduki beharko dute.
- ⇒ Arrisku-eremutik irtetean, dosimetroen emaitzak erregistratuko dira, horiek zuzenean irakurtzekoak badira. Langile bakoitzak bere historia dosimetricoa izango du.
- ⇒ Ekipo eramangarriak erabiltzen diren lanetan (landa-lana), kontrolatutako eremua mugarritu eta babestuko da, baimenik gabeko pertsonak arrisku-eremura sartzea galaraziz.

**BANAKAKO BABESAK Zerrenda ez da zehatza.**



Erradiazioen aurkako segurtasuneko oinetakoak (beharrezkoa den eremu eta instalazioetan).



Erradiazioen aurka babesteko eskularruak (beharrezkoa den eremu eta instalazioetan).



Erradiazioen aurka babesteko arropa (beharrezkoa den eremu eta instalazioetan).

**Fitxa honetako edukia orientagarria da eta enpresaren ondorengo jarduerari buruzko dokumentazioa osatzen du: arriskuen ebaluazioa, segurtasun-plana, jarraibideak...**

## **PREBENTZIO BALIABIDERAKO JARRAIBIDEAK**

### **AURRETIAZKO FASEA:**

- ⇒ Izendapenarekin batera, eragiketa honen inguruko dokumentazioa jasotzea: arriskuen ebaluazio berezia, segurtasun-plana, prozedura, jarraibidea...
- ⇒ Enpresak emandako zaintza-erregistroa\* jasotzea. Horretan, jarduerak eta/edo arriskuak, nahiz bete beharreko ekintza zehatzerako planifikatutako prebentzio-neurriak barne hartzen dira.
- ⇒ Banakako babes-ekipoak eskura direla eta horien egoera egokia, zein erabili beharreko jantziak egokiak direla egiaztatzea.
- ⇒ Segurtasun-sistema eta bere funtzionamendua egiaztatzea (aireztapena, kontrol-ekipoak, itzaltze-ekipoak...).
- ⇒ Eremuko mugarritze eta seinaleztapen egokia egiaztatzea: egin beharreko lanak, eremu arriskutsua, kanpoko pertsonentzat pasatzeko debekua...
- ⇒ Enpresaburuari prebentzio-neurririk ez dagoela nahiz horiek behar bestekoak edo desegokiak direla jakinaraztea, berehala jardun dezan.

### **LANAREN FASEA:**

**Fase honetan zehar, ahal den neurrian, lan-eremuan egotea ekidin behar da, arriskuan ez egoteko.**

- ⇒ Langileak zereginak ezarritako prebentzio-ekintzak betez egiten dituela eta banakako babes-ekipoak behar bezala erabiltzen dituela zaintzea.
- ⇒ Langileek babes kolektiboko neurriak kentzen ez dituztela egiaztatzea eta, beharrezkoa bada, kasuan-kasuan banakako babes-ekipoa erabiltzen dutela.
- ⇒ Ezarritako prebentzio-ekintzak arriskueterako eraginkorrak eta egokiak direla egiaztatzea
- ⇒ Bakar-bakarrik baimendutako pertsonen utziko zaie sartzan.
- ⇒ Egoeraren ondorioz aurreikusirik gabeko arriskuak azaltzen diren zaintzea eta enpresaburuari jakinaraztea.
- ⇒ Prebentzio-neurriak behar bezala bete ezean, langileei horiek behar bezala eta berehala betetzeko beharrezko argibideak ematea.
- ⇒ Prebentzio-ekintzen behar bezalako betearazpena zuzendu ezean, enpresaburuari horren berri ematea, beharrezko neurriak har ditzan.

### **LANAREN AMAIERAKO FASEA:**

- ⇒ Lanaren aurreko baldintzak lehengorutzen direla egiaztatzea.
- ⇒ Zaintza-ekintza bakoitzaren zaintza-erregistroa beteko da, honakoak jasota: prebentzio-neurrien betetze-maila, irregulartasunak, enpresaburuari egindako jakinarazpenak, etab.

\* Prebentzio-baliabidearen Eskuliburuaren V. Eranskina: Prebentzio Baliabidea izatea eskatzen duen egoeraren zaintza-erregistroa.

**ARRISKU BEREZIAK.** Zerrenda ez da zehatza.

- ⇒ JARIOEN ONDORIOZKO ERORIKOAK
- ⇒ SUBSTANTZIA KIMIKOAK ARNASTEA.
- ⇒ SUBSTANTZIA KIMIKOEKIKO KONTAKTUA: erredurak, narritadurak,...
- ⇒ SUTEAK
- ⇒ LEHERKETAK

**PREBENTZIO NEURRI OROKORRAK**

- ⇒ Langileek maneiatzen dituzten produktuei buruzko oinarritzko informazioa eduki beharko dute:
  - Produktuen konposizioa eta aurkako erreakzioak.
  - Arriskuen identifikazioa.
  - Lehen laguntzak, irentsi, arnastu edo larruazal eta begiekin kontaktua izatekotan.
  - Substantziak maneiatu eta biltegitratzeari, itzaltzeko bitartekoei, jarioetan jarduteko moduari eta abarrei buruzko prebentzio-neurriak.
- ⇒ Biltegitratzeko arau orokorrak bete beharko dira:
  - Produktuak, sukoitasun, leherkortasun, toxikotasun eta abarren inguruan dituzten ezaugarrien arabera, leku bereizi eta behar bezala egokitutakoetan (bero-iturrietatik urrun, eguzki-izpietatik babestuta, aireztatuta, lehor...) biltegitratzea. Produktuak biltegitratzerakoan, beren ezaugarrien arabera bereizketara errespetatzea.
  - Biltegitratze-eremua behar bezala seinaleztatzea.
  - Substantzia arrisku-maila oso handikoa bada, giltzapean eta arduradun baten zaintzapean biltegitratu beharko da.
  - Biltegitratzeko lekuaren aireztapen orokorra egoera onean mantentzea.
  - Segurtasun-gailu egokiak biltegitratzeko eta eragiketaren lekutik gertu edukitzea (sute-kasuetarako eta produktuak isurtzen direnetarako).
- ⇒ Produktuen manipulazioari eta lan-prozedurari dagokionez:
  - Arnasketa-bidetik sar daitezkeen substantzia xurgapen artifiziala duten beira-arasa berezietan manipulatu beharko dira edo, horrelakorik ezean, kanpoaldean edo bikain aireztatutako lekuetan. Beharrezkoa bada, arnasketa-bideak babesteko ekipo bereziak erabiliko dira.
  - Produktuak larruazalean barrena sartu edo narritatzaile edo korrosiboak badira, banakako babes-ekipoak erabiliko dira, hala nola: eskularruak, aurpegiko pantailak, betaurrekoak, lan-jantzi egokiak...
  - Higiene pertsonaleko neurriak muturreraino eramatea (eskuak sarritan garbitzea, produktuak manipulatzeko diren lekuan ez erretzea, ez jatea eta ez edatea).

**BANAKAKO BABESAK** Zerrenda ez da zehatza.



Produktu toxikoen aurka babesteko maskarak (substantziaren arabera iragazki egokia aukeratu behar da).



Ziprintin eta produktuen lurrunen aurka babesteko betaurrekoak edo pantaila.



Produktu kimikoen aurka babesteko eskularruak, erabilitako produktuaren arabera.



Ziprintin eta irristaden aurkako segurtasuneko oinetakoak eta/edo azpantarrak.



Arriskuaren arabera arropa egokia.

**Fitxa honetako edukia orientagarria da eta enpresaren ondorengo jarduerari buruzko dokumentazioa osatzen du: arriskuen ebaluazioa, segurtasun-plana, jarraibideak...**

## **PREBENTZIO BALIABIDERAKO JARRAIBIDEAK**

### **AURRETIAZKO FASEA:**

- ⇒ Izendapenarekin batera, eragiketa honen inguruko dokumentazioa jasotzea: arriskuen ebaluazio berezia, segurtasun-plana, prozedura, jarraibidea...
- ⇒ Enpresak emandako zaintza-erregistroa\* jasotzea. Horretan, jarduerak eta/edo arriskuak, nahiz bete beharreko ekintza zehatzerako planifikatutako prebentzio-neurriak barne hartzen dira.
- ⇒ Banakako babes-ekipoak eskura direla eta horien egoera egokia, zein erabili beharreko jantziak egokiak direla egiaztatzea. Arropa guztia aldatu beharko da sartu baino lehen.
- ⇒ Segurtasun-sistema eta bere funtzionamendua egiaztatzea (aireztapena, kontrol-ekipoak, itzaltze-ekipoak...).
- ⇒ Eremuko mugarritze eta seinaleztapen egokia egiaztatzea: egin beharreko lanak, eremu arriskutsua, kanpoko pertsonentzat pasatzeko debekua...
- ⇒ Enpresaburuari prebentzio-neurririk ez dagoela nahiz horiek behar bestekoak edo desegokiak direla jakinaraztea, berehala jardun dezan.

### **LANAREN FASEA:**

#### **Fase honetan zehar, ahal den neurrian, lan-eremuan egotea ekidin behar da, arriskuan ez egoteko.**

- ⇒ Langileak zereginak ezarritako prebentzio-ekintzak betez egiten dituela eta banakako babes-ekipoak behar bezala erabiltzen dituela zaintzea.
- ⇒ Langileek babes kolektiboko neurriak kentzen ez dituztela egiaztatzea eta, beharrezkoa bada, kasuan-kasuan banakako babes-ekipoa erabiltzen dutela.
- ⇒ Ezarritako prebentzio-ekintzak arriskueterako eraginkorrak eta egokiak direla egiaztatzea
- ⇒ Bakar-bakarrik baimendutako pertsonen utziko zaie sartzen.
- ⇒ Langileekin telekomunikazio-bide egokiren bat erabiltzea, etengabe komunikatuta daudela ziurtatzeko.
- ⇒ Egoeraren ondorioz aurreikusirik gabeko arriskuak azaltzen diren zaintzea eta enpresaburuari jakinaraztea.
- ⇒ Prebentzio-neurriak behar bezala bete ezean, langileei horiek behar bezala eta berehala betetzeko beharrezko argibideak ematea.
- ⇒ Prebentzio-ekintzen behar bezalako betearazpena zuzendu ezean, enpresaburuari horren berri ematea, beharrezko neurriak har ditzan.

### **LANAREN AMAIERAKO FASEA:**

- ⇒ Lanaren aurreko baldintzak lehengoratzten direla egiaztatzea.
- ⇒ Lan-eremutik ateratzean, langileak laneko jantziak eta norberaren babes-ekipoak kendu dituela eta bestelako jantzirik ez dagoen lekuetan gorde direla egiaztatzea. Izan ere, horiek agente kantzerigeno, mutageniko edo toxikoez kutsatuta egon daitezke. Debekatuta dago langileek laneko jantziak eta babes-ekipoak garbitzera eramatea.
